



ARTEAREN ERTZAK

‘Zuloa’ liburua kaleratu berri du Xabier Gantzarainek. Luze hitz egin du lanaz eta arteaz 20



MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak



- ELEKTROGAILU AUKERA ZABALA
- SMART RETAIL PANTAILA BITARTEZKO EROSKETA
- GARRAIO eta INSTALAZIO ZERBITZUA
- BIRZIKLATZE GESTIO INTEGRALA
- OBRA eta DEKORAZIO ZERBITZUAK
- www.milar.eus ON LINE EROSKETAK



608 313 047 (Etzetresnak)
688 616 881 (Sukalde Gunea)
Whatsapp bidezko zerbitzua.
Azkarrena!

MILAR Cooking&Chef

Sukalde Gunea

SUKALDE ERAKUSKETA eta
sukaldea janzteko behar duzun guztiak!



Julio Urkixo etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97



Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
Tel. 943 85 00 41

www.milar.eus

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarrria.eus
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 208.a (2018ko abuztua)
Urtea. XIX.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
 uztarrria@uztarrria.eus
Bazkideztza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hileroko
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. J. Frantzesena
Webgunea.
www.uztarrria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia



azpeitia udala




EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarrriak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esandako iritzien erantzukizunik

2018KO ABUZTUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||||||



iritzia

Inkesta. San Inazio festako zein egun duzu gustukoen? **13**

mamia

Elkarrizketa. Ujala Mehreen pakistandar azpeitiartuarekin hizketan **04**
Klik! Badira bisitatu daitezkeen toki historikoak herrian **16**

Laikoak Elizan.

Hitzaren Liturgia ematen du Alejo Urangak eta Loiolako serora da Tere Zurdo **26**

jakiteko

Atzera begira. Izarraitz txistulari taldeak 40 urte betetzen ditu aurten **34**



Ba al dakizu Azoka herritik egitasmoak ibilbidea bukatutzat eman duela eta ez dela azokarik izango irailan? Uztarrria

Izan uztarriaren bazkide t. 94315 0358

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro dira urtean. gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

UJALA MEHREEN

medalla

“Hemen goa sentitzen naiz; azpeitiarra”

Duela zortzi urte iritsi zen Ujala Mehreen Pakistanetik Azpeitira. Egun, azpeitiartzat du bere burua, eta ez du jaioterrira bizitzera itzultzeko asmorik. 📝👁️ Ane Olaizola

P Lanak bultzatuta etorri zen Ujala Mehreen familia Pakistanetik Azpeitira. Hasierako urteak gogorrak izan ziren gaztearentzat, baina pixkanaka herrira egokitu da, eta dagoeneko bere egiten du Azpeitia. Erraztasunez hitz egiten du euskaraz, eta esker onekoa da azpeitiarrekin.

Zerk bultzatuta utzi zenuen Pakistan?

Lehenengo aita etorri zen Azpeitira bizitzera, eta hemen lana aurkitu zuen. Bere nahia zen familia ere hona ekartzea, eta lanean kontratu mugagabea egin ziotenean, agiri guztiak lortzen hasi zen gu ere hona etortzeko. Guztia egindakoan etorri ginen familia osoa Azpeitira: ama, bi anaiek eta

ni. Aitak lan kontuengatik utzi zuen Pakistan. Han bazegoen lana, baina gutxi, eta handik ateratzea nahi zuen. Lehenengo Kwaitera joan zen, eta handik Saudi Arabiara. Ondoren, Herbereetan egon zen lanean, eta handik etorri zen Euskal Herrira bizitzera.

Zergatik aukeratu zenuen Azpeitia bizileku?

Aitak Beasainen egiten du lan, eta hemen zuen bizitokia. Beraz, gu ere zuzenean Azpeitira etorri ginen, eta orduz geroztik, hemen bizi gara.

Nola oroitzen duzu Pakistanetik Azpeitira etorri zinen bidaia hura? Zein ziren zure orduko beldurrak?

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1992ko azaroak 12.

||| **Herria.** Kotli (Kaxmir, Pakistan).

||| **Bizitokia.** Azpeitia.

||| **Lanbidea.** Zaintzailea.

Hegazkinez etorri ginen Euskal Herrira, eta beldurrik ez nuen, baina gogoratzen naiz oso triste nengoela. Izan ere, familia eta lagun guztiak Pakistanen utzi nituen. Herria atzean uztea eta leku berri batera joatea tristea da hasiera batean.

Azpeitira iritsi eta lehenengo hilabeteak nolakoak izan ziren?

Garai oso txarra izan zen niretzat. Izan ere, Pakistango jende oso gutxi zegoen artean herrian, eta lagun gutxi nituen hemen. Urte oso gogorrak izan ziren hasiera-

koak, eta ni ez ezik, familia osoa egon ginen triste. Lehenengo bi urteetan gaizki pasatu genuen, batez ere amak. Izan ere, nik eta nire bi anaiek eskolan denbora asko ematen genuen, baina ama bakarrik egoten zen etxean. Azken urteetan, ordea, Pakistanetik gero eta familia gehiago etorri da Azpeitira bizitzera, tartean nire osaba eta bere semeak, eta orduz geroztik askoz hobeto gaude. Irailean zortzi urte egingo ditugu Azpeitian, eta orain oso gustura bizi gara bertan.

Urdur eta ingelesez zenekien Azpeitira etorri zinenen, eta euskaraz eskolan ikasi duzu.

Euskaraz ikasteak denbora eskatzen du, eta ikasi arteko proze-



sua gogorra izan da. Azpeitira etorri nintzen lehenengo hilabetean, EPA Helduen Hezkuntza Iraunkorrera joaten hasi nintzen. Han esan zidaten herriko beste ikastetxeetan ere ikas nezakeela, eta EPAn hasi eta hilabetera Urola Ikastola BHIIn matrikulatu nintzen. Han ikasi nuen euskaraz, eta egia esan, asko kostatu zitzaidan. Ingelese zekien irakasle bat zegoen han, eta nik ere ingelesa banekien. Ingelesak elkar komunikatzeko balio izan zigun, eta irakasle hark azaltzen zizkidan euskaraz ikasi beharrekoak eta halako kontuak.

Dagoeneko ondo ikasita duzu euskara. Norekin praktikatzen duzu?

Euskaraz ez dut bikain hitz egiten,

baina ondo moldatzen naiz. Kalendar, gehienetan, euskaraz hitz egiten dut, eta gustatzen zait hala hitz egitea. Lagun pakistandarrekin eta familiarekin urduz egiten dut, baina bertako jendearekin beti euskaraz.

Zertarako balio izan dizu euskaraz ikasteak?

Azpeitiko herritarrekin harremanak modu egokian edukitzeko euskaraz jakitea komenigarria dela uste dut. Azpeitiarrek, batez ere, euskaraz hitz egiten dute, eta haiekin egon ahal izateko egokia da euskaraz ikastea.

Azpeitiarrek nola hartu zaituzte herrian?

Ondo. Oso jatorrak dira azpeitiarrek. Horiekin hitz egiten hasten zarenean, laguntzeko prest ager-

tzen dira beti, eta besteak errespetatu egiten dituzte.

Azpeitira etorri zinenetik, inoiz itzuli al zara Pakistanera?

2015ean joan nintzen hara. Denbora asko zen hara joan ez nintzela, eta egia esan, beti bezala aurkitu nuen herrialdea. Bazeuden gauza batzuk aldatuta, baina ez nuen berrikuntza handirik sumatu. Hasiera batean, han bizitzeko asmoarekin joan ginen Pakistanera ama eta biok, baina han geundela erabaki genuen berriz Azpeitira itzultzea. Orduan bost hilabete egin genituen Pakistanen, baina Azpeitira itzuli nintzenean, ez nuen ezer askorik sentitu; ez nengoen triste, hemen gus-tura bizi bainintzen. Hemen hobeto

bizi naiz, eta hemengoak sentitzen naiz; azpeitiarra. Azpeititik ir-teten dudanean, herrira noiz eta nola itzuliko naizen galdetzen diot neure buruari. Oso gustura sentitzen naiz hemen. Gainera, nire senideek ere Azpeitian bizi nahi dute, eta hori horrela izanik, ni nola joango naiz, bada, Pakistanera bizitzera?

Inoiz ez duzu pentsatu bizitzera Pakistanera itzultzea?

Oraingo, behintzat, ez dut halako asmorik buruan; horregatik nago hemen lanean. Laster ezkontzera joango naiz Pakistanera, baina berriz hona itzuliko naiz. Hemendik urte batzuetara ez dakit non egongo naizen, baina uste dut Azpeitian jarraituko dudala. Orain daukadan lana galdu-

ko banu, beste bat bilatuko nuke hemen bertan.

Zaintzaile lanetan aritzen zara Azpeitian. Gustatzen al zaizun lana da, edo halabeharrez egiten duzuna?

Erizain laguntzaile ikasketak egin nituen, eta, beraz, arlo horretan egin nahiko nuke lan. Baina gustura egiten ditut zaintzaile lanak ere. Emakume euskaldun baten etxean egiten dut lan. Azpeitian bizi naizenetik, euskaraz bai, baina gaztelaniaz ez dut ikasi, eta batzuetan gaztelaniaz hitz egiten dut zaintzen dudak andrearekin, hizkuntza hori ere ikas dezadan. Lanean bi ordu izaten ditut egunero atsedean hartzeko, eta etxera edo paseora joaten naiz tarte horretan. Aurretik, Eibarko baserri batean aritu nintzen zaintza lanetan, eta han sartuta aste osoa igarotzea kartzelan egotea bezalakoa zen niretzat. Orain, ordea, oso gustura nago.

Azpeitian bizi zareten Pakistango komunitateko ki-deak elkartzen al zarete zuen ohiturak praktikatzeko?

Erljiuari dagokionez, otoitz egiteko meskitara joaten dira gizonezkoak, eta emakumeek etxean egiten dute errezoa. Gainontzean, bataren edo bestearen etxeetan elkartzen gara batzuetan, batez ere, festetan. Urtean bi jai egun ditugu: bata, ramadana amaizten



den eguna, eta bestea, handik bi hilabete eta hamar egunera ospatzen duguna.

Zortzi urte Azpeitian bizi eta gero, jendeak oraindik etorkintzat hartzen al zaitu?

Egia da herritar batzuek oraindik etorkin bezala hartzen gaituztela, baina denetarikoa jendea dago. Dena den, beste zenbaitek euskalduntzat ere hartzen nau.

Azpeititik zer gustatzen zaizu gehien?

Herritarrekin hitz egitea gustatzen zait gehien. Asko laguntzen duen jendearekin egin dut topo herrian, eta besteez gaizki hitz egiten ez duen jendea ere ezagutu dut. Hori oso gogoko dut.

Jendeak ba al du zuen herriarekiko eta kulturarekiko interesik?

Ez dit jende askok galdetzen Pakistani buruz, ez da oso ohikoa izaten, baina konfiantza daukadan pertsonak eta lagunak jakin nahi izaten dute zerbait nire herrialdeari buruz. Oso herrialde polita da Kaxmir, eta jende asko joaten da hara. Nire herrialdeak badu Euskal Herriarekin antzekotasunik, oso menditsuak baitira biak.*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza
zaharberritzea
nahi duzu?



Erositako etxebizitza
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Aberriafu poligonos, 2
Tel. 943 355 016
Zarautz

Santiago aldea, 12
Tel. 943 143 443
Zumaiola

San Juan, 16 edif. AXBU
Tel. 943 852 110
Azkoitia

Cespede Kalea, 18
Tel. 943 148 241
Zeanoa




erreka
BIKE


**Ondo pasau
saninaziyuek!**



 Zubi Zahar, 4 • 20730 Azpeitia

 errekabike@hotmail.com

 943 81 16 38 • 657 79 05 24

 Erreka Bike

Non zaude zu?

Herriko denda batean entzun nituen bi emakume hizketan. Sammic-eko langileen grebaz ari ziren. Egun hartan Azpeitiko kaleetan ibili ziren langileak, bozina joka, aldarrira lantegitik plazara ateratzen. "Horrela, behintzat, ez dute ezer lortuko", esan zuen emakume gazteak. "Beno, agian lortuko dute zerbait, ezer ez eginda baino gehiago, behintzat", erantzun zion ondoan zuen andre helduak.

Sammic enpresako langileek uztailaren 2tik 10era egin dute greba megagabea, nahiz eta ekainaren 10ean hasi zituzten protestak. "Krisi garaian galdutako eskubideak" berreskuratzea izan dute helburu; haien arabera, enpresaren egoera ekonomikoa gaur egun ona delako. 2017 bukaeran agortu zitzaizen aurreko hitzarmena, eta langileek azarorako proposamen berria aurkeztu zuten arren, ez zuten jaso erantzunik. Azkenean, uztailaren 10ean, bi aldeek adostutako hitzarmena sinatu dute, lau urterako, eta bertan behera utzi dute lanuztea.

Bitartean, kalean parez pare ditugu batera eta bestera pentsatzen dutenak. Beti da aukera bat isilik egotea eta konformatzea, kexaka hasiz gero, gauzak okertu daitezkeelako. Beste aukera da pausoa ematea eta dagokizun horren alde borroka egitea, badakizulako isilik geldituz gero, betikoek irabaziko dutela. Bi jarrerak izan daitezke zilegi, norbere egoeraren arabera.

Dena den, gizarte bezala nola jokatzeko dugun aztertzeko balio digu honek: konformatu edo gurea aldarrikatu? Zer da isilik egotea gatazka batean, alde bat zapaldua denean, eta bestea zapaltzailea?

Erdiko marra hori

Desoreka egoeretan, ustezko erdiko marran jartzen bazara, bidea irekitzen diozu boterea duen horri. Hegemonikoa denak dagoeneko bereganatua du espazioa. Haren indarra zailantzan jartzeko modu bakarra protesta da,



eneritz albizu

||| Berdintasuna ez da guztia berdin banatzea; banaketaren ostean, guztiok berdin gelditzea baizik

aldatzeko saiakera. Genero indarkeria kasu batean, erdiko marran gelditzea erasotzailearen alde egotea da. Pobrezia egoeran dauden familiei baliabide gehiago eskaintzeko saiakera egiten ez badugu, diru gehiago dutenen aldean jartzen gara. Hizkuntza gutxitua sustatzeko neurri bereziak hartzea onartzen ez badugu, hizkuntza handiaren mesedetan ari gara. Natura zaintzeko kontzientzia hartzen ez badugu, zabor industriaren alde ari gara. Eta, jakina, langileen eskubideen alde egiten ez badugu, enpresarien erosotasunaren alde ari gara.

Berdintasuna ez da guztia berdin banatzea; banaketaren ostean, guztiok berdin gelditzea baizik. Injustizia egoeretan ez dago jarrera neutrorik, zapalduaren alde edo zapaltzailearen alde zaude. "Non nago ni?" galde-tu behar diogu gure buruari. Eta ez naiz ari erabateko zintzotasunaz, bizitza ulertzeko moduz ari naiz, inor ez delako erabat koherentea, eta are gutxiago ni neu.

Zorionak, Sammic-eko langileei!*





UROLA Autoeskola

Bustinzuriko Errebala, 3. atzea
Tel. 943 81 26 66 - 20730 AZPEITIA

Ziklomotor lizentzia eta gidabaimen lizentziak
CAP kurtsoak eta ADR kurtsoak



Gidabaimena euskaraz
ateratzeko aukera

**ONDO PASAU
SANINAZIYUEK**



Urola
PSIKOTEKNIKOA

Lurketak eta berritzeak

- ✓ Gida baimenak
- ✓ Armak
- ✓ Nautika
- ✓ Txakur arriskutsuak

Hartzubia, 31 behea

Tel 943 81 35 06 - 20730 AZPEITIA

ORDUTEGIA:

Goizez: Asteartetan 9:30etatik 12:00etara.


Arratsaldez: Asteazken eta ostegunetan 17:30etik 20:00etara.

**ONDO PASAU
FESTAK!**



HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Eragin linguistikoa aztergai

Udalak Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin du, Uemak lagunduta. Herrian eraikiko dituzten etxebizitzek euskararen bilakaeran “nahiko eragin positiboa” izango dutela aurreikusten dute.  Julene Frantzesena


Azpeitian 2018 eta 2022 urteen artean eraikiko dituzten etxebizitzek eragin dezaketean inpaktu linguistikoa aztertu du Azpeitiko Udalak. Uemaren laguntzarekin, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) egin du etxebizitza publikoak eraikiko dituzten eremuetan, baita etxebizitza libreak egingo dituzten tokietan ere. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Uemak joan zen agintaldian garatu zuten ELE, esku hartze batek izan dezakeen eragin linguistikoa aztertu ahal izateko.

Datozen urteetan Azpeitiko hainbat tokitan eraikiko dituzte etxebizitzak –batzuk eraikitzen hasi dira dagoeneko–, hala nola Esklabetan, Esklabak-Iturtzulo eremuan, Alde Zaharrean, Frontoi Txikiaren ondoan, Bustinzuriko Errebalean eta Alberdienean.

ELEekin aztertu dute gunehorietan etxeak eraikitzeak zer eragin izan dezaketean herriko hizkuntz errealitatean.

Euskararen arnagunea da Azpeitia; izan ere, 2016ko euskararen ezagutza datuen arabera, azpeitiarren %83,67 da euskalduna. Dena den, azken hogeitau urteetan 3,7 puntu egin du behera euskaldunen zenbatekoak. ELEren emaitzen arabera, etxebizitzek “nahiko eragin positiboa” izango dute herriko euskararen bilakaeran. Hala eta guztiz, euskararen eta euskal hizkuntz elkartearen egoerari kalteak aurreikusteko eta eraginik izango balute, horiek murrizteko neurriak proposatu dituzte, eta jarraipen batzordea eratu dute.✘



Esklabak-Iturtzulo eremuan eraikiko dituzte etxebizitzak, besteak beste.  Ane Olaizola



Aritz Orbegozo.

ESANA DAGO

“Ezusteko handia izan zen jendeak nola egin zuen bat egitasmoarekin, nola emozionatu zen, zenbat txalo...”

“Orain da erakundeekin hitz egiteko unea; behar bereziak dituzten umeentzat egitura sortu nahi dugu”

ARITZ ORBEGOZO
Marea Urdinaren sustatzailea

“Irakurri genuen gero eta familia gutxiagok hartzen dituztela Saharako haurrak etxean, eta animatu egin ginen”

ROSA LEUNDA
haur saharar bat dute etxean

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK*

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 beheak 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

 **Aiortza Autoak**

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefoniza.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK



Itsasoari begira

E guzkipean, hondartzan etzanda, itsasoari begira, alboko lagunaren solasaldiei ihes egin ezinik. Ni Zarautzen, zu? Portzierto, betiko suari egur pittin bat botatzeko: hondartzaren jabetza norena da? Edo beste era batera galdetuta, esate baterako, Donostiako lurren barruan dago Kontxako hondartza ala baranda ezagunek egiten dute muga? Inork inoiz argitu ez didan kontua. Agian, leku egokian galdera egin ez dudalako –ederra kazetaria–.

Etzanda, itsasoari begira, lepo gaineko bolan bizilagun diren garunak etengabe bueltaka. Bat-batean xapoon etorkizunak kezkatu

nau. Datorren maiatzean lau urteko kontratua egin beharko diegu udalbatza berriko lagunei. Hautagaiak honezkero ariko dira lan taldeak osatzen eta herritarron botoa merezi izateko programak prestatzen. Helburu bakar bat lortzeko bide ezberdinak proposatuko dizkigute: xapooi bizitza erosogoa agintzeko aukerak.

Beraiek zer eskaini zain egoteaz gain, badugu beste aukera bat: gure nahiak edo beharrak plazaratu. Nire botoa nahi duenak kontu garrantzitsu bat lortzen saiatuko dela bermatu beharko dit. Nahi dudana lortzea nahiko zaila da, baina lortzen saiatuko dela –edo direla–

agindu beharko dit. Berrito ere maparen lekuri gorenean kokatzeko saiakera, laborategiko lan fina eskatzen duena, oroitu berri dugun Inazio Deuna itzalean utziko duena, xapoon herriko ikerketa+garapena plana gailurrera eramango duena.

Alor denetan, edo ia gehienetan, onenak izatea ez da nahikoa, markaz kanpokoak lortu behar dugu. Nire botoa nahi duenak, Messierria Azpeitian sortzeko ahalegin osoa egingo duela agindu beharko du. Mundu osoa Azpeitiko xapo txikiari begira. Latza. Bai, latza Txetxu, izolazioa! Segiyok ureta preskatzea.*



txetxu urbieta

IKUSTEKOA!



▲ZABOR POLTSEN MISTERIOA.

Ukaezina da: gehiago edo gutxiago, denok ditugu maniak. Eta halakoren bat du Soreasuko pasabidean zabor poltsak uzten dituen herritarrak. Azken hilabeteetan, behin baino gehiagotan agertu dira zabor poltsak pasabideko txokoetan, eta ez da izango edukiontzia handik urruti daudelako. 📧📧 Mailo Oiarzabal*

|||UZTAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||||



Ingurua kakazten

GOENA. Kezkagarria benetan azkenaldian ikusi ditudan gure ingurueko argazkiak. Noski, Goena, Izarraizko Atea, Xoxote eta besteak guk disfrutatzen eta ezautzeko daude, baina horiekiko errespetua eta zaintza ere badagokizkigu. Ezinezkoa da inguruak kakazteko eta txikitze eskubidea dugula pentsatzea. Itsasoan, mendien eta ibaien egoera ikusita, gu izango ote gara munduko gaitzik larriena?



|||||alex silva|||||



Kulturaz eta sormenaz

BEKA. Aurten ere banatu dituzte Sorkuntza Bekak. Tandem polita osatzen dute Azpeitiko Kultur Mahaiak eta Udalak, adostasunean eta lankidetzan gure kulturaren eta balioen transmisioa sustatzeko. Gero eta gauza bereziagoak aurkezten dituztela ere garbi dago.



Bada garaia noizbait...

OMENALDIA. Inoiz ez dela berandu diote, eta agian arrazoia izango dute hori horrela dela diotenenek, baina garaiak eta garaiak daudela ere garbi daukat nik. Kasu honetan, Azpeitiko Udalak ez du zalantzarik izan, eta azken hamarkadetan askotariko giza eskubideen urraketak

jasan dituzten herritarrei eta horien senideei nahiz gertukoei omenaldia egin die. Omenaldia egin die erakundeak aspaldiko (eta ez hain aspaldiko) zauriak arintzen laguntzeko. Badute batzuek zer ikasia halako keinetatik.*

INKESTA

saninazioetako zein egun duzu gustukoena?

I. Elustondo/K. Fernandez

MARIA LUISA ARRUTI

86 urte



“San Inazio eguna eta San Inazio bigarrena gustatzen zaizkit

gehien; izan ere, meza ederrak izaten dira egun horietan, abesbatzak lagunduta. Horrez gain, kaleko giroa ere gustatzen zait”.

JUSTA MUNDUATE

73 urte



“Festetako azken eguna gustatzen zait, saninazioak bukatzen

direlako; herriak atsetden hartzen du, eta bakea nagusitzen da berriro. Ez naiz oso festa zalea, egia esan.*

Jose de Arceve, 17
Tel. 943-810654
AZPEITIA

Iñaki Oñdo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

BATZARREN ORDU EGOKA
Auzolaguna: Oribitzi eta eskolaren, 2300etan
Igarbidea: Garmena eta zinduzia, 11.15tan
Astean zehar, harkaitza ta deak
Informazio gehiago: Zerbitzu oraineko eta etorkizkoak
948.208.200
948.792.948
948.345.445

Hotz, huts dut barrua

Ezin loak hartu. Bero daude etxe-barruak. Sargori dago logelan: izarak gorputzera itsatsita, kosta egiten da arnasa hartzea; leihoak irekitzea alferrik izan da, haize izpirik ere ez dago-eta. Bero daude etxe-barruak, baina hotz dut, huts, neure barrua. Hotz harrapatu eta huts utzi nau albisteak, oheratzerakoan jasotako mezuak. Ezin sinetsita, urdailean jaso duen kolpea nondik iritsi zaion asmatu ezinik, olanan ahoz gora geratu den boxeolaria bezala. Tontotuta, zorabiatuta.

Adin berekoak, ikastolako garaietatik elkar eza gutzen genuenak ginen; gaztetan pare bat urtez azkoitiar-azpeitiar neska-mutil kuadrillan elkarrekin ibiliak. Ordudanik bakoitzak bere bidea eginda ere, bere betiko auzo ingurura bizitzera etorrita, han eta hemen elkar ikusitakoan “Iepa Kepa!” hitz-joko txepela eta “Baite!” ohiko erantzun ozena trukatzten genituen.

Ez ginen lagun handiak, ez, baina bere lagunak



Imanol Amiano

badira nire lagunak. Ni hotzak eta hutsik banago, nola ote daude besteak?

Ez dakit zer esango diedan. Hitz errazekoa naiz, txantxetarako askotan, baina horrelakoetan ez zait erraza egiten asmatzea. Onenean, hitz total ulergaitzen bat baino ez dut ahoskatzea lortuko. Zer esango diet, bada, topo egindakoan, emazteari eta semeari? Zer errepedearen bestaldeko espaloitik doanean ere, irribarre egin eta eskuaren keinu batez agurtzen zaituen alabari? Zer gurasoei? Eta txikitako auzoko bere lagun-minei? Zer demontre harekin Alpeetara motorraz gozatzera joan eta trapu zahar baten gisa etorriko den bion lagunari? Zer etxepekoa dudan bere lankideari? Zer esan sentitzen dena adierazteko hitz egokirik aurkitzen ez duzunean?

Bero daude barruak, sargori dago logelan, eta sabaira begira, ilunean, burua etengabeko jira-biran, begiak bildu ezinik nabil... Hotz, huts dut barrua...*

Gal detzen hasita, zenbat azpeitiar animatuko dira EuskaraLdian izena ematera, irailetik aurrera? Uztarria

Harremanak go(x/z)atuz

I lunabar ugari ikusi ditut eztarrian korapilo hura sentitu nuenetik. Ikasturte amaiera zen eta hantxe nengoen azken orduan eginiko lana inprimatzeko zain. Papertegira presaz sartu nintzenez, ez nuen agurtzeko betarik hartu. Segundo gutxiren buruan, ordea, hantxe ikusi nuen sabaitik zintzilik kartel dotorea: “Kaixo eta agur ez dira inoren beldur”.

Egoera nola hobetu pentsatzen hasi nintzen, izerdi hotza sumatu bainuen barrenean. “Bai, dokumentu horixe zuri-beltzean. Eta, kaixo! Barkatu, agurtzea ahaztu egin zait eta, arratsaldeon deizula!”. Isilik egoitea erabaki nuen bat-bateko ahozko literatura sortzeko nuen gaitasun urriaz ohartuta. Dena den, eztarriko pilota askatzeko “mila esker, eta hurrengora arte” esanez agurtu nintzen.

Geroztik, beti saiatzen naiz saltokietan, tabernetan, okindegian... agurtzen. Hezibide onekoa delako hartu nuen ohitura, baina orain herritarren erreakzioak aztertzeko desiraz ere agurtzen dut. Asko dira




Irati Aranguren

“egunon!” entzun eta entzungor egiten dutenak; estralurtarra banintz bezala muturra okertu eta goitik behera begiratzen didatenak ere ugari dira. Tartean behin eskerrak agertzen den bekainak altxatuta harrera egiten didan norbait. Adrenalina txutea! Eta non dago, bada, irribarre eztiz “egunon zuri ere” esango didan herritar hori? Agian, agurtu zale den jendea ez da nire ordu berean joango okindegira.

Estralurtarra da katu kosmikoa ere, baina harekin ikasi genuen “goiz-goizetan egunon, eta gauetan gabon” abesten. Egoera ikusita, eduki gehien ume-tan barneratzen dugula dioen teoria deuseztatu egingo nuke. Kepa Junkeraren *Maletak* abestian ere “mila aldiz entzun dugu agur eta ohore, euskararen bitxi hoiak nahi genituzke gorde, modu desberdina dugu agur esatekore” diote.

Ikusiak ikusi, herritarroi aholkutxo bat: erlojupeko proba dirudien gure egunerokotasunean harremanak apur bat gehiago goxa eta mima ditzagula.*

HAU HOLAXEENK



Galtzailearengandik ihesi

Amaitu da. Hilabete iraun du. Erritmo zoroan hasi zen guztia, ekitaldi garrantzitsuen moduan. Prestaketak eta egutegia antolatzeari izan ziren lehenengo egitekoa –afariak egiteko aitzakiak sortzea–, apustuak ondoren. Bakoitzak bere faboritua(k) aukeratu z(it)uen, baina aste pare batean lasaitu zen dena. Kinielek huts egin omen zuten. Lantokiko askotariko porrek zentzua galdu omen zuten, eta amaierarako, dialektika emozionalak –gustuko taldearen alde egitea– alde batera utzi eta arrazionaletan –herrialdeen ikuspegi politikoaren irakurketan– murgildu gara.

Mundialaz ari naiz, bai. Ez naiz futbolearen joatzeko moduaren inguruko balorazioetan sartuko –txoko honek izan dezakeen zilegitasun apurra gal ez dezan–. Hala ere, bada herritu nauen fenomeno bat. Jendeak egin dituen talde aukeraketak. Izan ere, gustukoenak ziren taldeak kanpoan geratzen joan diren heinean, beste batzuk aukeratzen joan gara. Eta aurtengoak ezustean harrapatu dituen asko eta asko, fase bakoitzean taldez aldatzera behartuta ikusi dituzte horiek beren buruak.

Lagun batek esan zidan gurea den talde

bat ez izateak dakarrela hori, gureari ez genizkiola adarrak jarriko. Baina arduratuta nago joan-etorri hori ez ote den jokoz kanpo ez geratzeko estrategia bat. Galtzailearengandik ihesi ibiliko bagina bezala, irabazteko helmuga berrien bila.

Herrian zabaltzera doazen apustu etxearen edo gunearen irekiera sortzen ari den hasierako zalaparta isiltzen denean, galtzailearen ondoan egoteko gai izango ote garen galdeztzen diot neure buruari. Edo gaia berriro tabu bihurtu eta ihesi joango ote garen irabazteko helmuga berrien bila.*

|||||||felipe murillo|||



Erotikan Plax!

Estali gabeko igerilekuko txiringittoa kudeatzen du azkoitiarrak, eta berari egokitu zaio hil honetan galderei erantzutea.

Lanean bizitzen duzun gustuko une bat?

Lagun giroan sentitzen naizena.

Gorputza dantzan jartzeko tokia al da igerilekua?

Eguzki izpiek, aire zabalak, urak eta belardiak bereziki laguntzen dute, landareei bezala.

Barra atzean ligatzen omen da. Txiringittoa ere bai?

Nahi bai!

Zarauzko hondartzan 'topless' gutxi egiten dela diote esanek. Igerilekuan?

Ezagunekin gehiago kostatzen da. Ausartago izan behar genuke.

Zer erantzi behar genuke hobeto bizitzeko?

Gizarteak ezarritako tipula kapak, barruko esentzia azaleratzeko.

Sexu aniztasuna agerikoa al da igerilekuan?

Herriaren errealtatearen isla da.

Sexualitate osasuntsuaren alde, zertan busti behar genuke gehiago?

|||INA JUARISTI|||

Jaio. 33 urte.

Herria. Azkoitia.

Bizitokia. Azkoitia.

Lanbidea. Zerbitzaria, aktorea...



Norbere buruarekin bat eginik bizitzen eta mundura horrela azaltzen.

Oraindik ere alkohola behar al da ligatzeko?

Behar ez, baina laguntzen du.

Maitasunean arrakasta izateko estrategia bat?

Gu geu izatea.

Txiringitoko zer elementure-

kin seduzituko zenuke norbait?

Maitasunez kozinatutako edozein. Esku ona daukat...

Inoiz sartu al duzu gozokirik ohean?

Bai, baina neu naiz gozoena.

Udako gau zoro batean biluzik dantzatzeko abesti bat?

War-Galaxy.

Goiz jaikitzea merezi duen plan bat?

Zaldiz inguratuta naturaz gozatzea.

Betetzeko duzun desio bat?

Munduari buelta ematea.

Bihurrikerietarako txoko bat?

Txiringittoa; itxi ostean, barruan...

Gomendio bat?

Barre gehiago egin, bizitza bi eguneko da!*

|||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)|||

|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:

Sindikatu Zaharra, 2. solairua

www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920

Abuztuan ez da izango aholkularitza zerbitzurik.





▲ ALBERGA.

Garai batean elizari itsatsitako harresiaren zatia zegoen tokian dago alberga edo garbitokia. 1842an eraiki zuten, Jose Javier Olazabalen laguntzaz. Eraikina, estiloz, neoklasikoa da, eta erdi estalita du sabaia; izan ere, eraikinaren erdian urmael handi bat dago, inguruko hogeitauraska hornitzen dituena; uraska bakoitzak bere txorrota eta latsarria ditu. Etxaurre nagusian, burdin forjatuz eginiko bi ate daude, eta etxaurrean itsatsita Azpeitiko ikur bilakatu diren lau iturburu berezi.

Bada zer bisitatu

Urtez urte herria itxuraldatzen ari bada ere, badira mendeetan zutik jarraitzen duten eraikin historikoak. Zaharberrituta, ikusgai daude asko. 📌📷 Nora Alberdi

► ANTXIETA JAUREGIA.

Arkitektura mudejarra duen eraikinak arte kristauaren elementuak eta apaingarri arabiarrek ditu. Jauregia XVI. mendean eraiki zuten, Juan de Antxieta musikariaren eta Errege Katolikoen kapilauaren aginduz. Eraikinaren elementurik ikusgarriena etxaurrea da: beheko aldea harlanduz dago egina, eta gainerakoa adreiluz. Konposizio eskema hori duen Gipuzkoako eraikin bakarra da. Egun, Kutxabankena da eraikina, eta Atzegiren eguneko zentroa dago bertan, baita bi pisu tutelatu ere.




◀ BAKARDADEAREN KAPERA.

Soreasuko Sebastian Donearen parrokiak zortzi kapera ditu, eta horietako bat nabarmentzekoa da: Bakardadearen kapera. Errenazimenduko harribitxia da, eta bertan Nicolas Saez de Elola zenaren hilobia dago. Azpeitiarra Pizarroren kapitainetako bat izan zen Peruren konkistan. Saez de Elolak 1533an idatzi zuen testamentuan, Azpeitiko parrokian erosita zuen lekuan sakristia, organoa eta harrizko hilobia zituen kapera erakitzea agindu zuen. 2002 eta 2006 urteetan egindako birgaitze lanei esker, kaperak jatorriz zuen itxura berreskuratu zuen, baita horma irudien zati bat ere. Lan haiek egitean, kanpai baten moldea eta garai desberdinetan lurperatutako pertsonen eskeletuak aurkitu zituzten.

▼ MADALENAKO INTERPRETAZIO ZENTROA.

1535ean, Parisen ikasketak amaitu eta gaixorik iritsi zen Azpeitira Loiolako Inazio. Madalenako ospitalean hartu zuen ostatu, gaixorik ziren behartsuekin batera. Hainbat tokitan jasota dagoenez, hiru hilabetez izan zen ospitalean, eta gaixoentzat eta behartsuentzat janari eta laguntza eske ibiltzen zen kalean. XVI. mendeko ospitale zaharra Jesusen Lagundiak berritu zuen, eta 2014tik zabalik dute jesuitek interpretazio zentroa.





◀ ENPARAN DORRETXEA.

1930. urtean eraiki zuten dorretxea; hain zuzen ere, Euskadiko Ahaide Nagusietako oinaztarren familiak eraiki zuen. 1456an Enrique IV.a erregeak dorrearen goiko aldea eraisteko agindu zuen, eta mende bat beranduago, 1953ean, konpondu egin zuten dorretxea. Dena den, 1750ean hartu zuen eraikinak gaur egun duen itxura; dorre zaharra jauregi bihurtu zen, jatorriko dorreari bi gorputz atxiki zizkieten alde banatan eta garai hartan ohikoak ziren hainbat elementu barroko ere jarri zizkieten eraikinari. Gaur egun, Azpeitiko Udal Liburutegia dago Enparan dorretxean.

▶ TRENAREN MUSEOA.

Zumaia eta Zumarraga lotzen zituen Urolako trenaren geltokian dago museoa. Europako tren bildumarik onenetakoa dago gune horretan, hainbat ibilgailu mota ikus baitaitezke, hala nola lurrun, diesel eta elektrizitate bidezko lokomotorak, automotorrak eta bagoiak. Museoak, 1926an inauguratu zuten trenbidearen tailer mekanikoaz gain, bi bilduma ditu bertan: treneko jantziena bata, eta tren geltokietako erlojuena bestea. Erloju bilduma munduko onenetakotzat hartzen dute adituek. Burdinbidearen Euskal Museoa 1994an inauguratu zuten, eta gaur egun Euskotrenek kudeatzen du. Lurrun trenean Lasara bidaia da museoaren eskaintzetako bat.



► LOIOLAKO BASILIKA.

XVII. mende bukaeran, inguru hartan baserriren bat baino ez zenean, hasi ziren Berniniren ikasle Carlo Fontana arkitektuak diseinatutako eraikin erraldoia egiten. Bi mende behar izan zituzten lanak bukatzeko, eta Izarraizko harrobitik ateratako marmolarekin ez ezik, Italiatik eta Karrantzatik ekarritakoarekin ere osatu zuten eraikina. Sarrerako ate nagusia, berriz, Kubatik ekarritako kaoba zurez egina da. Erromesen helmuga bilakatu zen zabaldu eta gutxira basilika, eta gaur egun Gipuzkoako hiru tenpluen ibilbideko guneetako bat da.



▼ BASOZABAL JAUREGIA.

Basozabal Azpeitiko jatorrizko eraikin zibilik zaharrena da, XIV. mende amaierakoa, zehazki. Etxe pribatua izan zen 60ko hamarkadara arte, eta 1985. urtean zaharberritu egin zuten. Gotiko estilokoa da jauregia, eta Gipuzkoan ohikoa ez den patio bat dauka barruan. Udalak jauregiari balio erantsia eman nahi dio, eta jauregiaren izaera errespetatuta, berritzen ari dira. Besteak beste, turismo bulegoa, interpretazio gunea eta erabilera anitzeko gelak egingo dituzte bertan; besteak beste, ekitaldi zibilak, formazio saioak eta abar egiteko.



▲ SANAGUSTINGO ERRETAULA.

Garai batean udaletxearen azpiko eliza izana, kulturaren plaza da egun. Sanagustin kulturgunea zabaltzerako erabat berritu zuten gunea, baina agertokiaren atzeko erretaula mantentzea erabaki zuten, haren balio historikoa handia delako. Askotan teloi beltzaren atzean izaten da, ezkutuan, baina abuztuan-eta agerian jartzen dute.*

XABIER GANTZARAIN

‘Zuloa’ saiakeraren egilea eta Kultur Mahaiko teknikaria

“sakratutasuna kendu behar zaio arteari”

Kultur arloan ibilbide luze eta oparoa du azkoitiarrak, eta patxadaz hitz egin du kaleratu berri duen ‘Zuloa’ liburuaz. Badu hizketarako gairik. 📧📺 Julene Frantzesena

Kulturarekin eta artearekin estu lotuta bizi da Xabier Gantzarain. Proiekturik ez zaio falta izan azkoitiarrari, eta kultur arloko askotariko lanetan aritutakoa da. *Zuloa* saikera liburua kaleratu berri du, urteetako lanaren ostean.

2012an jaso zenuen Tene Mujika beka, eta sei urtera kaleratu duzu liburua. Asko kostatutako lana izan al da?

Asko ez, ikaragarri. Beka jaso nuen, lana urtebetean egitekotan nintzen; izan ere, halako beka batera aurkezten zarenean, beroaldian zaude eta egingo duzula pentsatzen duzu. Buruan duzu proiektua, baina, gero, beste gauza pila bat egin behar da bizitzeko. Gainera, idazten ari nintzen obren gaineko materiala banuen, baina beti ate-

ratzen dira irakurketa, kritika edo el-karrizketa berriak, eta dena jaso behar nuela sentitzen nuen, azken zera hori ere bildu behar nuela. Eta hori batzuetan frustrantea izan da; ez dit lanean lagundu. Beldur batzuk ere banituen, [Xabier] Mendigurenek beka eman zidatenean historia hurbila aztertzeke beka zela argi izateko esan baitzidan. Hori ere pisu moduko zerbait izan da zer idatzi behar nuen, norentzat idatzi behar nuen eta zer tonu izan behar zuen erabakitzerakoan. Dena den, gustura nago emaitzarekin.

Zergatik ‘Zuloa’?

Alde batetik, Ibon Aranberriren lanaren izenburua hori delako, eta bestetik, lehen kapituluaren horri buruz hitz egiten dudalako. Kontatu nahi nuen horretarako giltzarria

|||DATUAK||||||||||||||

|||**Jaio.** 1975eko urtarrilaren 29a.

|||**Herria.** Azkoitia. |||**Bizi tokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Azpeitiko Kultur Mahaiko teknikaria.

izan da lan hori, eta hasieratik nuen argi azala hori izatea nahi nuela. Bestalde, zuloa bada erreferentzia bat memoriari, bidean galtzen dugun horri... Eta, bestalde, zuloa hitz polisemikoa da, esanahi ugari ditu, eta gatazkarekin lotuta dago, memoriaren zuloarekin.

Hitzaurrean galdera dezente egiten dituzu. Horien artean dira honako hauek: “Historiak ba al dauka sekula hurbila izaterik?” eta “noiz hasten da iragana historia izaten?”. **Liburua bukatuta, horiei erantzuteko gai al zara?**

Ez, inondik ere ez. Galdera horiek

buruan nituen liburua idazten hasi nintzenean, eta helburua ez zen liburua bukatzean horiei erantzutea. Xedea zen galdera horiek ezintan moduan proposatzea; izan ere, hori da abiapuntua. Historia hurbila aztertzeke proiektu batean zer kontaktzen da? Eta, galderak dioen gisan, historia hurbila noiz hasten da? Kezka handia dut horrekin, eta gure gaur egungo bizi-modua hain dago beteta informazioz, sare sozialez eta abarrez... Dena segituan pasatzen den sentipena daukat. Adibide bat, Euskal Herrira ekarrita: ETAk zenbat iraun duen ikusten dugu, eta dena zer desberdina den orain. Gaur 15 urte dituen bati hasi zaitez, bada, ETA zer zen azaltzen... Gauza horiekin zalantzak eta kezkak ditut.

Euskal Herriaren historia



hurbila gatazka batekin egon da lotuta. Artean ere izan al du eragina?

Bai, baina aitortu beharra dut nik egin dudana hautaketa interesatua izan dela; hain zuzen ere, nik kontatu nahi nuena kontatzeko aukeratu ditut obra horiek. Euskal Herriko artistek aspalditik egin izan dituzte gatazkarekin lotutako lanak, eta horiek modu interesgarrian proposatu dituzte, ikusleak bere kasa egin dezan berak nahi duen irakurketa.

Gizartean oso zabaldua dago artelanak ez direla ulertzen.

Oso zabaldua dago artea eta gizartearen elkarrengandik oso urrun daudela, artea bere baitan bilduta dagoela eta arteak jendeari ez diola ezer transmititzen. Artelantant proposatzen dituzten gauzak guk modu batean edo bestean bizi ditugunak dira, eta nire lanaren oinarria izan da obrak testuinguru historikoan eta soziopolitikoan kokatzea. Norberak beretik egiten du

beti lanaren irakurketa, eta, beraz, beti izango da irakurketa interesatu samarra. Dena den, obra baten irakurketa egiterakoan, lanaren ezagarrak, gaia, gaiaren tratamendua eta proposamena hartu behar dira kontuan, eta obra horren gaineko beste irakurketa batzuk ere lagungarriak izan daitezke. Irudia irakurtzea da giltza, irakurtzen saiatzea, hau da, "irudiak zer esaten dit niri?" galdera egitea norbere buruari. Irakurketa hori nola egin dudana nik? Beste gauza askorekin lotuz. Joera daukat lotura gabeko gauzei lotura bilatzeko. Arte kritikari oso on batek zioen artelanak interpretatu beharrik ez dagoela, obra horretan zer dagoen kontatu behar dela.

Zulo bat al dago arte garaikidearen eta gizartearen artean?

Alde batetik, ez digute irakasten irudiak irakurtzen; eta bestetik, artea ikusteko dugun ohitura nahiko urria da, normalean. Museoetan baino jende gehiago ikusten dut poteatzen, oso adibide txarra jartzen hasita. Arteak ez du pisurik, eta museo batera joaten garenean kostatu egiten zaigu obrak ulertzea. Eta, gainera, museoak audio bidezko gida bat jartzen digu, eta gauzak ulertzeko gure gaitasuna ez dugu lantzen. Museo batera joaten zara, eta ateratzean, "hau al zen?", esan ohi dugu. Saldu digute artea izugarria dela, gorena dela, museoetan nik ez dakit zerekin gordeta dagoela, ikaragarri balio duela... eta hori guztia jakinda, ezin hobeia izan behar duela pentsatzen dugu. Eta izugarria izan behar zuen horrek ez dizu ezer esan, frustratu egiten zara eta "ni tontoa naiz?", galdetzen diozu zure buruari. Sakratutasuna eta sublimetasuna kendu behar zaizkio arteari. Lan bat gustatu zaizula eta zerbait esaten dizula? Ba oso ondo. Eta ez zaizula gustatzen, oso ondo baita ere. Alde batetik, puztu egin dugu artea. Hedabideek arteari lotutako bi mezu ematen dituzte: "Ez da ulertzen" eta "200.000 euro kostatu da hori egitea edo 200.000 eurotan saldu da margolan bat en-

||| **MOTZEAN** |||||

LIBURU BAT?

Camembert helburu.

IDAZLE BAT?

Natalia Ginzburg.

TOKI BAT?

Gurasoen etxeko balkoia.

ARTELAN BAT?

Ibon Aranberriren *Zuloa*.

ABESTI BAT?

Joseba Tapiaren *Hemen bizitzea*.

MUSIKA TALDE BAT?

Anari.

BIDAIATZEKO TOKI BAT?

Japoniara joango nintzateke gustura.

JAKI BAT?

Edozein.★

kante batean". Bi mutur horien artean gabilta.

Askotariko 23 artelan aukeratu dituzu libururako. Zergatik horiek?

Ez dakit. Zerrendan gehiago nituen, azken orduan bat edo beste kendu dut, beste batzuk zerrendan zeuden baina ez ditut sartu, hasieran ez zeuden batzuk gehitu ditut... Batzuk oso gustukoak ditudalako eta sartu beharra sentitu nuelako aukeratu nituen; izan ere, Euskal Herriko historia hurbila artearen bitartez aztertzeke derrigor sartu beharrekoak ziren horiek. Espazituki azaldu ez baldin badut ere, badu hari bat saiakerak, nire hari bat.

Artisten iritzirik jaso al duzu liburua argitaratu ostean?

Ez, ez aurretik eta ez ondoren. Garbi nuen ez nuela artistarengana joan nahi bere lanak zer esan nahi zuen galdetzeraz. Uste dut artelanei buruz hitz egiteko pertsonarik desegokiena haren egilea dela, ni *Zuloa* liburuz hitz egiteko naitzen bezalaxe. Egileak gauza pila

bat ditu buruan, forma eman dio lanari eta bere ustez, gauza bat egin du. Baina garrantzitsuena da hartzaileak zer jasotzen duen, eta *Zuloa* da artelan horiek jaso dituen pertsona batek egindako liburua. Ikusitakoa kontatzen dut, eta horregatik ez dut jaso iritzirik.

Liburuaren tesi nagusieta-koa da Euskal Herriaren eta euskal kulturaren arteak ez duela presentzia handirik. Zergatik diozu hori?

Badut intuizio edo susmo bat, eta hori da 60ko hamarkadan bizi zuten egoeratik –euskaraz debekata zegoen, frankismoak zentsura ezarri zuen...– ateratzeko modua izan zela artea. Artea modu sinbolikoan erabili zuten, gauzak komunikatzeko. Txillidaren eta Oteizaren eskultura abstrakto bat nola bihurtu da bat-batean Euskal Herriko identitatearen ikur? Poliedro oker bat ikur bihurtu da, garai hartan bizi zen egoerarekin beste aukerarik ez zegoelako. Trantsizioaren ostean, baina, arteak ja ez zuen sinbolikoki hainbeste indar; artistek lehen zuten funtzioa galdu zuten, eta artelanek indarra. 60ko hamarkadan Oteiza eta Txillida ezagutzen zituzten herritarrek, baina haien ondorengo artistak ez dakigu zeintzuk diren, ez dakigu ezer haien lanez eta ez dugu gogorik lan horietan zer esaten duten pentsatzeko. *Zuloaren* xedeetako beste bat izan da Txillidaren eta Oteizaren ostean ere, Euskal Herriari zerbait interesgarria esan diezaioketen lanak egin direla azaltzea. Bestalde, uste dut hizkuntzarekin lotuta dauden diziplina artistikoak beste modu batean baloratzen direla, baina horiek hizkuntzagatik baloratzen dira. Irudipena dut horrek ere eragin duela; izan ere, arteak normalean ez dauka hizkuntzarik –hizkuntza bisuala da erabiltzen dena–, eta ja horrek atzerakada eragiten digu.

Funtzio sinboliko hori ez du behar euskal gizarteak gaur egun, beraz?

60ko hamarkadan gizarteak bazekien Oteizaren, Txillidaren edo Basterretxearen lanek zer esan

nahi zuten, bazekien zeren alde egiten zuten, nahiz eta dena oso kolokan dagoen. Adibidez, Caja Laboralek 1986an eskultura horiekin denekin egutegi bat kaleratu zuen, eta eskultura horiek herritarrentzat oso gertukoak egin ziren; izan ere, hil batean Basterretxearen lana, hurrengoan Txillidarena... zuten herritarrek etxeko sukaldetan. Arte joera hura, eskultura haiek, zerbaiten ikur izan ziren, baina gaur egun ea zer banketxek egiten duen egutegi bat Ibon Aranberriren, Asier Mendizabalaren eta Itziar Okarizaren lanekin. Era bat aldatu da guztia, arteak beste bazter bat hartu du. Ikusi besterik ez dago gizartea, hedabideak eta abar nolako aldatu diren 60ko hamarkadatik hona. Eta ikaragarria da Guggenheim berak nola aldatu digun artea ikusteko modua: artea ikur sinboliko izan zen, eta gaur museoaren apaingarria da. Garrantzitsua museoak da, hiri marka, urbanismoa eta turismoa bultzatzea, eta barruan jartzen diren Warholen lanak edo Armaniren diseinuak bigarren mailakoak dira. Honetara eramane gaituzten faktoreak asko dira, baina arteak 60-70eko hamarkadetan izan zuten funtzioak eta gaur egungoak ez dute zerikusirik.

Iraganak irautera egiten diola diozu liburuan. Noiz da artea garaikide?

Historia bezala, artea ere xerretan moztzen da, eta hori arazo bat da. Arte garaikideaz ari garenean, ez gara ari gaur egungoaz soilik. Arte garaikidea hastean da, batzuen ustez, XX. mendearan hasieran, eta beste batzuen iritziz, 60ko hamarkadan. Arte garaikidea eta gaur egungo artea ez dira gauza bera, baina artea beti da historikoa. Artelan bakoitzak beti dauka urtea, egilearen biografia... eta hori dena da artelan baten historikotasuna. Artelan batek, nahi edo ez nahi, beti islatzen du bere garaia; bere garaia den seme-alaba da.

Zertarako behar da artea?

Kontua da zertarako den artea eta norentzat: hau da, artea zer da zuretzat, niretzat, bestearentzat... Ez

“Arteak balio du gauzen ordena naturala hankaz gora jartzeko”

“Museoetan baino jende gehiago ikusten dut poteatzen”

dut uste adostutako zerbait denik. Arte garrantzitsua da guk ontzat ematen ditugun ohiturak eta gauzen ordena naturala hankaz gora jartzeko. Hankaz gora jartzea da eraikita dagoen zerbait dela erakustea. Niretzat arte horretarako da: dena da eraikitako zerbait, objektibotzat eta neutrotzat ematen zaigun hori ere eraikita dago, eta arteak balio behar du naturalizat ditugun gauzak desnaturalizatze-ko.

Pentsamendu kritikorako atea da, beraz?

Pentsamendu kritikoren oinarria da guztia zalantzan jartzea. Galde-zea da filosofiaren, pentsamendu kritikoren, kulturaren eta artearen oinarria. Gauzak oso arbitrarioak dira, eta artea da gauzak zergatik diren horrela galdetzeko eta ezarri- ta dagoena eztabaidagarria dela ikusteko. Norbaitek erabaki du hori horrela izatea, baina ikusi behar genuke zergatik erabaki duen hori. Zergatik da horrela? Galdera horri erantzun behar genioke. Adibide bat jartzearrean, zergatik egin behar dute emakumeek pixa eserita eta gizonok zutik? Zergatik ez dugu gizonok eserita egiten? Eta beste adibide bat: familiak ematen dio etxeari forma edo etxeak familiari? Hiru logelako etxe batera joaten bazara bizitzera, zenbat seme-alaba izango dituzu? Hamabi? Ikaragarriko grazia egiten dit, adibidez, “hau beti horrela egin da” esateak. Izan ere, zer da beti? Noiz arte da beti? Beti horrela egiten bada zergatik aldatzen dira gauzak? Gauza batzuk hain ditugu bameratuta, egunerokoan nahiko eroso bi-



Xabier Gantzarain Soreasuko sormen gunel

zitzeko, horiek denak pentsatu gabe jan egiten ditugu.

Zutabegile eta telebistako gidoigile izana, arte kritikaria ere bazara. Zein da arte kritikariaren egitekoa?

Arte kritikariaren lana asko aldatu da azken urteetan. Arte kritikariaren lana da artelanari edo artistari leihoak irekitzea. Ez lana ezaguna egitea, baizik eta berak egin duen lan horretara iristeko bideak irekitzea. Horregatik, Susan Sontagek dioen moduan, ez dago interpretatu beharrik, deskribatzea nahikoa da, eta arte kritikoa egindako hori zer den kontatu behar du. Bestalde, obra garaiarekin lotzea eta hari testuingurua ematea ere badago. Ni saiatu naiz hori egiten; batzuetan asmatzen duzu, eta besteetan ez; eta beste batzuetan itota sentitzen zara leiho gutxi zabaltzeagatik.

Bi biografia liburu zeharo desberdin egina zara: Vincent



ko obretan.

van Gogh eta Joxe Mari Soraluze 'Epelde'.

Biak enkarguz egin nituen. Orain gutxiago, baina van Gogh asko gustatu izan zait. Nerabezaroan, pintatzen hasi nintzenean, van Gogh izugarria zen niretzat. Istorio erromantikoa zuen: pobrea zen, baina margotzen aritzen zen, bere buruaz beste egin zuen, bere lanak arrakasta lortu zuen... Zera erromantiko horren eraginpean nengoela egin nuen liburua; gaur beste era batera idatziko nuke van Gogh buruz. Epelderaren liburua, berriz, Trikitixa Elkartearen enkarguz egin nuen. Erronka zen liburua hori egitea, trikitiaren mundua oso arrotza zelako niretzat. Kaleumea izan naiz beti, ez dut bizi izan inoiz trikiti giro hori. Liburuak leihoa ireki zidan, nire herrian neure ondoan zegoen beste mundu bat ezagutu bainuen.

Kalostara arte eskolaren koordinatzaile izan zinen, baina

bertan behera utzi zuten proiektua.

Bai, izan nintzen, oso labur. Maxim Huerta baino pixka bat gehiago iraun nuen, baina... Kulturaren gertatzen dira halakoak, beste arlo guztietan bezala. Euskal Herri bezala ez dugu ez pentsatzen eta ez funtzionatzen. Administrazio biki hiru-tan banatuta gaude, bi estaturen pean, eta Euskal Herri bezala ez dugunez funtzionatzen, bakoitza berera doa eta ez dago herri ikuskerarik. Ardatzak ez daude zehaztuta, eta ez dagoenez adostasunik, instituzioetara iristen denak boterea baldin badauka hankaz gora jartzen du aurretik zeudenekin egingandakoa. Hori horrela izanik, dena dago beti kolokan. Kulturaren gauza pila bat ikusten ditut kolokan. Horrela ikusten ez dudana bakarrik Guggenheim da. Diru-laguntzak murriztea eta baldintzak aldatzea nahikoa da koloka eragiteko, eta hori beti dago aldaketa politikoa-

ren eta administrazioaren erabakien menpe.

Kultur Mahaiko teknikaria zara. Zer erronka dituzue?

Kultur mugimendua oso indartsu dago Azepeitan, baina hori ere badaezpadakoa da. Ezerk ez du bermatzen hori horrela izango denik hemendik hamar urtera. Euskalaren erabilera datuak ikusita, eta jorakerak eta beste hainbat gauza kontuan hartuta, kezka dezentekoa daukagu, adibidez, transmisioarekin. Kultur Mahaiaren bi ardatz dira sormena eta transmisioa, eta horiekin ari gara lanean. Askotan ematen du gauzak betidanik dardela hor, baina Sanagustinik ez zegoen duela hamar urte. Gauzak berehala aldatzen dira, eta Kultur Mahaiaren erronkak dira irautea, sendotzea eta aurrera begirako norabidea ezartzea herriko kultur mugimenduari.

Kultura zergatik lagundu behar da diru publikoarekin?

Eta industria zergatik lagundu behar da diru publikoarekin? Galdera klabea da artea zertarako den; izan ere, politiko batek ikuspegi izan behar luke, baina baita herriak ere. Ez dugu ikusten artea zein garrantzitsua den herri baten zatitza, herri baten identitatearentzat: zer pentsatzeko gai garen eta zer pentsamendu kritiko daukagun, zenbateraino garen kapaz gure arazoak konpontzen hasteko. Hori ez da ikurrin kontua, egunerokoan sortzen diren arazo potoloak dira horiek: pertsonen arteko harremanak, sexismoa, matxismoa, ikusten ez den biolentzia, lehiakortasuna, bakardadea... Arazo potoloak daude ikurrinaren atzean, eta sormenak, arteak eta kulturak balio dute non bizi garen ikusteko, gure arazoez jabetzeko eta horiek aztertzeko eta aurrera begira zer izan nahi dugun erabakitzeko. Literaturak eta musikak egin gaituzte garen bezalakoak. Pelikuletan ikasi dugu nola eman muxu, nola heldu bikotekideari zinema aretoan... Hori guztia barneratu egin dugu. Zergatik da garrantzitsua EITB indartsu eta ganorazkoa izatea?

Euskaldunon erreferentzia nagusia delako. Beraz, zergatik lagundu behar da sormena? Herri bezala ganorazko zerbait egingo badugu, oso garrantzitsua delako.

Euskal kulturaren komunitatea prekariora da; beti larri. Zer gertatzen da?

Herri subordinatu bat gara, eta ez daukagu gaitasunik, ahalmunik, gogorik eta ausardiarik euskal herri bat, euskaldun herri bat egiteko. Behar dena da hizkuntza politika sendo eta eraginkor bat, eta hori ez daukagu ez dugulako herri bezala pentsatzen eta beste batzuk direlako interesak. Ez dugunez herri proiekturik, euskalduna gero eta babesgabeago dago, zokoratua, argudio gutxiarekin, bere burua justifikatu beharrean... Bere burua justifikatzen diru-laguntzak jasotzeagatik? Nola liteke hori? Espainiarrak ez al dute diru-laguntzarik jasotzen? *Diario Vasco*ren, adibidez, 80.000 euro jasotzen ditu euskara

sustatzeko. Benetan ari al dira? Egongo ez gara ba gero eta prekariorago, eta, gainera, esango dute, euskarazko kultura ez dela kontsumitzen... Nola kontsumituko dira, baina, euskarazko edukiak, egunero euskara bazter batean lagatzen duen bonbardaketa mediatikoa baldin badago! Euskaldunek sortzen dutena ez dela kalitatezkoa dioen mezuarekin dabilta, euskalduna beti erridikulizatu egiten da – *Vaya Semanitan*, kasu–... Horri buelta ematen ez badiogu, jai daukagu. Ez dakit nola eman dakiokeen egoerari buelta, baina uste dut erakunde publikoek badutela zer egina.

Euskal kultura gero eta gutxiago kontsumitzen dela diote Siadecok orain gutxi egin duen ikerketaren datuek. Kezkatzekoa da edo datu hutsalak dira?

Kezkatzekoak ez dakit, baina kontuan hartzekoak badira. Datuekin kontuz ibili behar da. Siadecok inkesta egin zuen, jende kopuru bati egin zizkion galderak eta hortik estrapolatu zituen datuak; beraz, auskalo. Dena den, horiek baino kontuan hartzekoagoak dira Elkarrek ateratako datuak. Elkarrek prentsaurrekoa eman zuen bere jardun ekonomikoaren azalpena emateko. Orduan esan zuten jardun ekonomikoaren %80 banatzaile lanekin fakturatzeko dutela, baina fakturazio hori ez da Euskal Herrikoa soilik, Espainiakoa ere bai. Hor dago koxka: Elkarrek ikusi badu euskara ez dela errentagarria, espainolari heldu behar diola, espainiarrez editatu, banatu eta saldu behar duela... Arazo handi bat dago hor.

Zein da arazoa?

Euskarazko kultura ez kontsumi-



tzeaz gain, zer eredutara goazen. Kontsumo ohiturak eta moduak aldatu egin dira, gero eta azkarrago aldatuko dira, eta aldaketa horren barruan ulertu behar da kontsumo-arena. Nire irudipena da euskaraz asko hitz egiten den tokietan kontuz ibili beharra dagoela; izan ere, guk pentsatzen dugu euskaldunak garelako, modu naturalean, eta dena etorriko zaigula bere kasa, azpeitiarrak eta mundialak garelako. Baina hori gezur galanta da, eta kontzientzia pixka bat ez bada pizten, jai dago. Euskaldunak baldin bagara eta kontziente bagara, beste era batera jokatzeko hasi behar genuke gauza askoren aurrean: erosten dugun egunkaria,

ikusten dugun telebista katea... Baina egunero munduaren kontra ibiltzeak nekatu egiten du, eta... Hegemoniaren karta zera da: ezingo duzu bizitza guztian nire kontra egin, errendituko zara, nekaturako zara, eta azkenean esango duzu onena hauxe dela. Eta espainolez hitz egingo dugu, izango zara ez dakit nolakoa, jantzik duzu Real Madrilen elastikoa eta dena ondo joango da.

Azpeitia, kultur arloari dagokionez, izan al daiteke Euskal Herrira begira irekitako laborategi bat?

Bada, jada. Guretzat beti izan da garrantzitsua euskara, eta hori ardatza da. Sormen Gunearen funtzionamendua euskaraz imajinatzen dugu, eta sormena garrantzitsua da, baina euskaraz izan behar du. Alde horretatik, Euskal Herriari eta euskaldunei irekita izango da Sormen Gunea. Ez da inor baztertuko, baina lehentasuna izango du antzerkia euskaraz

egiten duen talde batek edo zerbait landu nahi duen euskaldun batek. Euskal Herriko sortzaile euskaldunentzat dagoen sareko beste puntu bat izango da Azpeitia.

Eta Sormen Gunea zertarako?

Lanerako. Sormen Gunearen abiapuntua oso simplea da: sortzaile batek, normalean, baldintza kaskarrak izan ohi ditu lanerako. Batetik, leku bat behar du, eta, bestetik, ederra da antzeko kezkek eta gustuak dituzten lagunak inguruan izatea eta lanerako giroa sortzea horien artean. Hori da, asko sinpletuta, Sormen Guneak eskainiko duena. Baina eskainiko du formazioa, ikasteko aukera, elkarlaneko proiektuak egiteko abagunea, babes, giroa, eta izan behar du herriko kultur mugimendua bizirik mantentzeko, suspertzeko eta etorkizunean zer izan behar duen erabakitzeko leku bat.*

IKA argi lanak s.l. Instalakuntza Elektrikoak
 Urko: 618 96 49 95 / Jan: 649 12 02 71
 ikaargi@lanak@gmail.com www.lanestemak.com
 20730 AZPEITIA



ONDO PASAU SANINAZIUEKI

EREKI

EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA

SORMENETIK ETA EUSKARATIK KOMUNIKAZIO
KULTURA ERAIKITZEN

ESTRATEGIA ETA SORMENA
ON LINE ETA OFF LINE

 Ildefonso Gurrutxaga, 12 behea

 943 08 06 88

 eregi@eregi.eus

 www.eregi.eus



Laikoak aldarera

Apaiz kopuruarekin batera murriztu dira elizkizunak, eta pisu gehiago hartzea tokatzen ari zaie Elizaren bueltan dabiltzan ez-erlijiosoei. 📌 Mailo Oiarzabal

San Juan egunean mezarik gabe gelditu ziren Oñatzen. Bertako festen egun nagusian urtero izaten dute elizkizuna; baina aurten igandea izan da ekainaren 24a, asteko meza egun nagusia, eta ezin izan zuten topatu elizkizuna zuzentzeko inor. Horregatik, San Juan bezperara aurreratu zuten meza oñaztarrek.

Oñatzen aurten gertatutakoa errealitate baten erakusgarria besterik ez da: apaizak urritzen ari dira eta elizkizunen kopurua ere bai, elizkoiarenekin batera. Duela ez hainbeste urte gurean pentsaezina zena gertatzen ari da eta gero eta gehiago dira, parrokia txiki-tan bereziki baina ez bakarrik, elizgizonen hutsuneak betetzen ari diren laikoak. Horietako bi dira Alejo Uringa (Urrestilla, 1957) eta Tere Zurdo (Urrestilla, 1975).

Urrestillako eta inguruetako parrokietak elizkizunetan urteetan monitorea zein irakurle lanak bete ostean, duela lauzpabost urte zuzendu zuen lehen aldiz Hitzaren Liturgiaren ospakizun bat Uringak, Aratzerrekan. Eukaristiarik gabeko elizkizuna da Hitzaren Liturgia, ogiaren eta ardoaren kontsakrazio-rik gabea, baina mezaren balioa du. Aratzerrekako lehen ospakizun haren ondoren, Urrestillan zuzendu zuen hurrengo elizkizuna Uringak, eta harrezkero beste hainbat tokitan ere bete ditu eginkizun horiek: Matxinbentan, Nuarben, Beizaman... Lagun Onak Mendi Bazkunak deituta ere gidatu ditu azken urte-

otan Xoxoteko eta Txalintxoko egunetako elizkizunak; eta aurten, lehen aldiz, Santa Engrazira joateko ere deitu zioten. Joan den ekainean ere Xoxoten aritu zen, Azpeitiko jubilatuen urteroko txangoaren barruan.

Zurdo, berriz, Loiolako basilikako serora edo sakristaua da duela urtebete pasatxotik. Eliza nagusietan, behintzat, gizonen kontua izan da oraintsu arte sakristautza; hala ere, Zurdo ez da basilikako lehendabiziko sakristau emakumezkoa, bere aurretik aritu zena ere emakumea baitzen. Loiola "leku gustukoa" zuen lehendik ere Zurdok. Elizara zein pasierara, "isiltasun bila", baita hango gaixoak bisitatzerara ere, "askotan" joaten zen, baina "harrituta" gelditu zen jesuitek sakris-

tau lana eskainiz deitu ziotenean. Urteak dira Urrestillako parrokiako taldean lanean hasi zela, irakurle bezala hasieran, eta ardura gehiagorekin gerora; baina Loiolako elizkizunetan-eta inoiz parte hartu gabea zen. Orain, astean zehar ere bai baina gehien bat asteburuetan, basilikan egiten du lan eta "oso gustura" ari da. "Jainkoaren opari bat izan da niretzat", aitortu du. Loiolan lan egin arren, "Urrestillan laguntzen jarraitu ahal dezaket", dio.

Esker ona

Zurdok lagunduta zuzendu ditu hainbat elizkizun Uringak, baita Aratzerrekan zuzendu zuen aurreneko hura ere. "Jada ez nau kez-



Aratzerrekako lehen hitzaren liturgiaren ondoren atera zuten argazkia. |||Tere Zurdok utzitakoa



Alejo Uranga eta Tere Zurdo, Urrestillako parrokiari. |||Mailo Oiarzabal

katzen jendearen harrerak, baina hasieran bai”, dio Urangak. Lehen aldi haietan inguruan halako ikusmin bat sortu zela kontatu dute biek. Aratzerrekarra Urrestillako jende dezente joan zela gogoratu dute, eta Urrestillan bertan lehen aldiz egin zutenean “jendetzatza” elkartu zen elizan. “Lagun batzuek-eta txantxak egiten zizkidaten, ‘meza berria eman behar omen duk’, ‘Alejo meza ematera zihoak’ eta horrelakoak esanez. Baina ikusmin eta guzti, polita izan zen”, gogoratu du Urangak. “Jendea etortzen zen ikustera, nobebade bat ikustera joaten dena bezala, estreinaldi bat edo”, gaineratu du Zurdok.

Elizkoiaren harrera onak uxatu dizkie kezkek. Elizkoi gehienak edadetuak izanda, aldaketak haiengan izan zezakeen eragina zegoen, neurri handi batean, aipatutako kezken oinarrian. “Baina uste dut zaharrak gu baino azkarragoak direla, eta akordatuta daude hemen zer arazo datorren, apaizak gastatzen doazen heinean. ‘Hauek onartzen ez baditugu, hau hementxe bukatzen duk’”, laburbildu du Urangak. Zurdoren ustez, berriz, “jendea

gustura sentitzen” da laikoak eginkizun berriotan ikusita: “Uste dut ikusten dutela Eliza denok osatzen dugula, ez bakarrik apaizek. Ikusten dutenean jende gehiago dagoela, apaizez gain, erlijiosoak ez direnak, uste dut horrek jendeari on egiten diola. Konturatzen dira hemen daudela pertsona batzuk fedea daukatenak, beraien parekoak direnak”.

Hain zuzen ere, jendearen esker ona da nabarmentzen dutena, Elizan egiten duten lanaren sari nagusi gisa: “‘Hauek zertan ari dira?’, esango dute askok, baina niri izugarri gustatzen zait, jendeak eskertu egiten dizulako; eta jendearen esker on hori, niretzako dena da”, dio Urangak. Etxetik irten ezinda dauden gaixoei astero jauna ematera joaten denean jasotzen duen eskertza ere horren adibide moduan azaldu du.


Zerbitzu baten bermea

Apaizak ez ezik, elizkoiak ere gastatzen ari direla jakitun dira Uranga eta Zurdo. “Batzuk izango dira mezetara beti etorriko direnak, baina gazteen artean, fededunak direnen ar-

tean ere bai, ohitura hori bukatzen ari da, lehenengo astero elizara joate hori”. Dena den, momentu eta ospakizun jakinetan, hiletetan edo jaiegun berezietan, elizarako joera jende askok mantentzen duela dio. “Eta nahiz eta elizara ez etorri, jende horri berari etxean zer-bait gertatzen zaionean, heriotzaren bat, edo bataioren bat egin nahi badute, badakite hor zerbitzu bat dagoela martxan”. Zerbitzu horren bermeari eustea da, Urangaren aburuz, etorkizunean Elizari tokatu ahal zaiona.

“Ez baldin badago elkarte bat elizara joaten dena, hori mantentzen saiatzen dena, pixkanaka galtzen joaten da”, dio, bere aldetik, Zurdok. Azken belaunaldietan galtzen joan den transmisioan ikusten du gakoetako bat: “Fedea transmititzeko, bizi egin behar da. Ez baldin bada bizitzen, zaila da transmititzea. Elizaren eragina gizartean mutur batetik bestera pasatu da”. Harrobia lantzea ezinbestekoa iruditzen zaio, eta azken urteetan jorrazten hasi diren familia mezak bezalakoak tresna interesgarriak direla uste du. “Azkenean, formulak bilatu behar ditugu”.*

Festak, abuztu bukaerarako

San Agustin jaiak ospatuko dituzte abuztuaren hondarrean Goikokalean. Otorduak, zezen txikiak, mus eta dardo txapelketak nahiz zozketak egingo dituzte hiru egunetan.  Julene Frantzesena

Goikokaleko bizilagunek San Agustin festak ospatuko dituzte abuztuaren bukaeran. San Agustin eguna hilaren 28an bada ere, lehenago hasiko dituzte festak; hain zuzen ere, abuztuaren 24rako eta 25erako egitarau oparoa prestatu dute Goikokaleko festa batzordekoek.

Hilaren 24an, ostiralez, dardo txapelketa azkarra egingo dute Fideo de Mileto tabernan. Dena den, festei hasiera emango dien txupinazoa hurrengo egunean botako dute. Egun osoko festa izango dute Goikokaleko bizilagunek larunbatean; izan ere, asotariko ekitaldiak antolatu dituzte.

Goizean, txupinazoa bota eta gero, zezen txikiez eta hamaiketakoaz gozatu ahal izango dute kaleko plazatxora bertaratzeko direnek. 15:30ean, berriz, mus txapelketa izango da Sanagustin kulturgunean. Bikote bakoitzak hogeituro ordaindu beharko du izen-ematea, eta txapelketa baino lehen egin beharko da inskripzioa. Iluntzean, berriz, parrillada egingo dute, Goikokaleko plazatxoan. Gainera, urtero legez, zozketa ere egingo dutela aurreratu dute batzordeko ordezkariak.

Aldizkari hau inprimatzean ez zuten egitaraua guztiz itxita festentolatzailleek, eta litekeena

III DATUAK

III Zer. San Agustin jaiak.
III Eguna. Abuztuak 24, 25 eta 28 (ostirala, larunbata eta asteartea).
III Tokia. Goikokale.
III Antolatzailea. Goikokaleko Festa Batzordea, Sanagustin kulturgunea eta Udala.

da ekitaldi gehiago ere prestatzea jaietarako.


Egunean ere bai

Jaiak izenpetzen dituen eguna asteartea izanagatik, ospakizunekin jarraituko dute Goikokalean. San Agustin egunean ardo dastaketa eta auzo bazkaria egingo dituzte Sanagustin kulturgunean. Bazkarirako izena kulturgunean bertan eman ahal izango da.✳

III SANAGUSTINAK GOIKOKALEAN

3 egun. Abuztuaren 24an, 25ean eta 28an ospatuko dituzte aurtengo jaiak, eta hainbat egitasmo prestatu dute festa batzordeko kideek egun horietarako.✳



Iazko Goikokaleko jaietako jolasetako irudia.  Julene Frantzesena

III BESTERIK

1 Artoaren inguruko saioa Artoa aletzen, ehotzen, taloak egiten eta artaburuen hostoekin eskulanak osatzen ikasi ahal izango da saioan. Aurrez izena eman behar da 943 81 24 48 telefono zenbakira deituta.
III Eguna. Abuztuak 26 (zapatua). III Ordua. 11:00-12:30 III Tokia. Ekoetxea.
III Antolatzailea. Ekoetxea.

2 'Lekaime' film laburraren aurkezpena

Xanti Rodriguezek zuzendutako 'Lekaime' film laburraren jendaurreko aurkezpena egingo dute. 40ko hamarkadan kokatutako istorioa biltzen du filmak, eta hainbat aktorek parte hartu du ekoizpenean.
III Eguna. Irailak 21 (ostirala).
III Ordua. Gauean (ordua zehazteke dute) III Tokia. Soreasu antzokia.

3 Euskal pentatloia, bueltan

Harri-jasotzen, gizon proban, aizkoran, txinga eramaten eta korrika neurtuko dituzte indarrak Xabier Orbegoza 'Arria V'ak, Haritz Azpiazu 'Arria VI'ak, Luis Txapategik, Jon Ander Maizak, Jon Gisasola 'Zelai'-k, Xabier Zalduek eta Alex Txikonek.
III Eguna. Irailak 29 (zapatua).
III Ordua. 22:00 III Tokia. Zezen plaza.✳

III Azeptiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

Koh Tao
OSAGARRIAK
Foru ibilbidea, 3 • Tel.: 625 686 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Getz autobakilerak dute zuzendaritza
AIZPURU AUTOAK
PREZIO BAJAK
Tel. 943 81 23 69
Fax: 943 81 22 81
aizpuru@aizpuru.net
www.aizpuru.net
Arriola 17, 20730 AZPEITIA

Zor zaiona eta sormena

Sormena inguratzen gaituena, bakoitzak duen adierazteko modua da; hori besterik ez, eta hori guztia. Sormenak ez du zertan karratua eta margotua izan behar, ez du zertan errima eta neurri armonikoa izan behar, ez du zertan zuri-beltzekoa edo mila koloretakoa izan beharrik.

Sormena bakoitzak mundua ulertzeko duen baliabidea dela uste dut. Bakoitzak du berea, eta bakoitzak duen era horrek du bere ikuslea, entzulea edo mireslea... edo ulertuko duena. Eta era berean, ez du zertan izan. Finen, sormena baliabidea izanik, barne gatazka, ulertu nahia edo dolua arintzeko balio izan badigu, nork behar du ispilurik?

Adierazteko prosezua, ulertu nahi hori, kanpora ateratze hori, ez da samurra izaten askotan, edo gehienetan. Kanpora atera behar haren behararekin, barruak hustu eta ohiuari, negarrari edo maiteminari kolore, kanta, koreografia nahiz argazki forma emateko bidea ekitearen indarrak ez du atzera bueltarik.

Barrutik kanporako bidea, barne gatazken, etsipenaren eta gozamenaren artekoa izan ohi da, eta emaitzetatik harago, ahaleginari berari errespetua zor zaiola uste dut. Askok ez duten errespetua, alegia. Errespeturik ez sortu duenarekiko, ezta sortu duenak besteekiko ere; ondorioz, bere buruarekiko ere ez.

Aurrekoa kontuan hartu eta ulertzeko ahalegina egingo bagenu, olerkia behin irakurri eta barneratu ezean birritan irakurtzen ahalegintzeko jarrera izango genuke. Antzerki obra batek hamargarren minuturako zirrarak sortu ezean, amaierara arte egon behar genuke errespetuz besaulkia epeltzen eta jarra egokian; margolan bat desatsegin bazaiagu, sortzailearen hiztegian irudiek eta kolorek duten esanahiari erreparatu eta berriro begiratu behar genioke.

Sormenaren asteburua

Diodanari eusten diot, hala ere, eta berresten



olatz aguado

III Norbera aintzat har dezaten nahi baldin badugu, aintzat hartu behar du norberak bestea

dut alderantzizkorik ere gertatzen dela. Hau da, sortzaileak ere galtzen duela besteekiko errespetua, bilgarri deigarri batekin apaindu-tako ezer ez bat zerbait balitz bezala adierazten edo aurkezten duenean besteen aurrean. Eta hori ere ez dago batere ondo!

Norbera aintzat har dezaten nahi baldin badugu, aintzat hartu behar du norberak bestea. Asteburu honetan, urtero bezala, Eako Poesia Egunetan izan naiz. Herri polit bat, eguraldi ederra, adin guztietako jendea, eta batez ere, giro aparta urtero legez!

Ean sortutakoari zor zaion jarrera, eta sortutakoak besteari zor dionaren arteko errespetuak eredu izan beharko luke; alde batekoaren zein bestekoaren aintzakotzat!

Nahiago nuke sormenaren asteburu bat siera egingo balitz gure herrian. Kale antzerkiak, margolanek, marrazkiek, graffiteiek, tatuajeek, kanteak, bertsoek, musikak, dantzak, majiak, umoreak, eskulanek, artisauek, asmatzaileek, ipuin kontalariak, sukaldariak eta sormena kalera atera nahi dutenek herria hartuko balute. Eta nahiago nuke gure herriko bizilagunek begirunez eta errespetuz gozatzeko aukera izango balute!*



IZENBURU GABEA
TEKNIKA MIXTOA
TA PUNTO

HITZ GEZIDUNAK

	Aro	Erreka handiak	Hitz, solas	Moduak	Beldurtiak, izutiak
	Atabal jotzaille	Larru	Emeak gurasoekiko	Etsaia	
	Luze-zabalerak				
	Endak, leinuak				
Orotariko	Orotariko		Alderdi kartista		
Izena	Deitura		Aezkoako herria		
		Itsas ondoko amil-degi			Kontso-nantea
		Emakume izena			Bokal birbila
Ez emea			Garestia		
Esana			Itsas arrain		
			Ahologar		Kontso-nantea
			Garai, aldi		Honakoa
Espainiako diru zahar				Berme	
Laborarien lanabesa				Kontso bikoitza	
		Metal bikain			Bokal erreplikatua
		Bokala			Kontso-nantea
Gizon izena				Zaren horrek	

Egilea: Luma

* Psikologo azpeitiarra

SUDOKUA

		8			7			
4			6					
	6	3	1				5	
	5		9		6			2
	8		7	1		9		
1		6		3		8		
	4			6	1	7		
				2				6
			5		2			


Partigiano

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Irailak 26 (asteazkena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behe (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



|||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

1 GUSTUKO DUGU

2 NOR DATOR?

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

K	U	Z	●	R	O	N	A	K	I	N	●	
A	A	●	E	R	U	●	A	G	E	S		
I	H	A	●	B	A	T	E	Z	E	P	●	
T	●	O	I	K	●	A	N	A	R	R	●	
A	O	I	A	R	A	●	A	R	A	●		
R	●	A	R	A	B	A	L	A	R	A	Z	I
A	K	A	●	E	A	I	A	L	A	●	E	●
K	A	R	A	L	A	Z	A	●				
I	A	R	I	A	B	A	T	A				V
●	E	●	E	●	I	●	A	●				

SUDOKUA

8	4	2	9	7	5	1	3	6	5	1	6
6	3	1	2	9	4	1	2	9	3	7	6
5	4	2	8	3	6	1	7	5	9	4	8
4	1	9	6	2	5	3	7	8	4	1	9
3	8	4	7	6	1	5	9	3	2	8	4
3	5	7	9	4	8	6	1	2	6	9	3
6	9	5	1	2	4	8	5	9	7	6	3
4	1	9	6	8	5	3	2	7	4	1	9
5	2	8	3	9	7	4	6	1	5	2	8

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Zeinuak 2 Hankamotza

|||UZTARRIAREN UZTAILEKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Alberto Frantzesena Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 208. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.

Urdalazplikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpliko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damao Azkue 6

||| GUTUNA |||||

900 lagun Berdura Plazan bazkaltzen...

1936ko ekainaren 14a, igandea, Nekazarien III. egun handia. Urolako trenak izango zuen estimurik egun hartan, milaka nekazari eta abertzale bildu zirelako herrian. Herriko taberna guztietatik eraman zuten jatekoa eta edatekoa Berdura Plazara; sekulako jai giroa sortu zen, lagunartea, 900 lagun bazkaritan. Kafea hartu eta bertsolariak izan ziren: Txapel, Zepai, Uztapide eta Baserri. Urte hartan, lau bertsolari horiek Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalean aritu ziren. Final hartan Txirritak jaso zuen txapela. San Sebastian bezperan jokatu zen, Donostiako Viktoria Eugenia. Finalurrekoetako bat Azpeitiko Berdura Plazan, 1936ko Urte Berri egunean.

1936ko ekainaren 14ko jaiak, bazkalondoan, zezen-plazan jarraitu zuen. Herri kirol jaialdia izan zen. Leporaino bete zen plaza. Aurrena lau aizkolari aritu ziren. Gero, sokatiran herriartekoa jokatu zuten: Azpeitia, Oiartzun eta Hernani elkarren aurka. Aurreneko bie jokatu zuten finala. Jaialdia agurtzeko, aurrez Berdura Plazan aritutako lau bertsolariak eta An-



doingo Etxeberria –urte hartako txapelketa nagusiko finalista hori ere– aritu ziren. Egun hartarako ere iragarriak zeuden harri-jasotzaileak, lasterkariak, irrintzilariak, dantzariak eta hizlariak.

Euskal pizkundearen adierazpen esanguratsu bat izan zen Azpeitia egun hartan: 1936ko ekainaren 14a, pizkunde haren azken egunetakoa. Hilabete pasatxora, uztailaren 18an, etorriko zen guzti hari amaiera emango zion estatu kolpea, altxamendu militarra.

Pizkunde hartan euskal nekazariak elkartu eta antolatu egin ziren; kontsumo kooperatibak sortu; bertsolariak kaleratu eta Euskal Herriko bertso txapelketak antola-

tu; Euskal hezkuntzan lehen urratsak egin; euskararen egunak antolatu; euskal dantza taldeak osatu; euskalgintzan aurrera egin; langileak antolatu; sindikatuak sortu... Lau hamarkadetako frankismoak etengo zuen hura guztia, eta gure herriaren memoriatik zati oso bizi hura guztia ezabatu nahi izan zuen.

Bide bazterrak arakatzear gain, badugu gure artxibategiak aztertzen lanik, orduko Euskal Pizkundeari estalkia zehaztasunez altxatzen hasteko. Nor ginen jakinda, nor garen hobeto ulertuko baitugu.*

||||| aitor unanue |||||

||| EFEMERIDEAK |||||

1872

Iturri berriak. Pilotalekuaren ondoan eta Abitainen berriro iturriak egin zituzten, eta herritar guztientzat zabalik zirela adierazi zuten.

1913

Sutea. Sute handia izan zen Txarabarrena baserrian.

1997

Lurrikara txiki bat. Lurrikara txiki bat izan zen herrian, gehienez ere 3,6 gradukoa. Sentitu bazen ere, ez zuen ezbeharririk eragin.

📌 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

||| BIDEOAK |||||



Esklabak 50eko hamarkadan.*

KIMU BAT GARDEN

Animaliontzako denda berria

Gure etxeko lagun iltsu, lumadun eta ezkatadunentzako eskaintza zabala!

Urrestilla bidea, 7/g. AZPEITIA

Lehen aldiz

Gaur egun gaizki jaten laguntzen duen inguruan bizi gara, batik bat umeak. Inguruaren eragina ez ezik, gurea ere jasaten dute; izan ere, ez al gara gu txikienean ohitura txarrei hasiera ematen diegunak? Beraiek ez eskatu arren, zenbat aldiz eskaintzen dizkiegu osasuntsuak ez diren produktuak?

Lehen opil, gusanito, chupa chups, Aspitosak... umeak eskatzen al ditu? Urtebetetze meriendetan umeak edo helduak dira zer jan erabakitzen dutenak? Zergatik eskaintzen dizkiegu produktu ultra-prozesatuak?

Umeari zergatik eskaintzen dizkiote karameloak botikara, harategira edo arraindegira sartzen denean? Umeak eskatzen al du? Umeak eskatzen al ditu lehen aldiz gosaritarako edo meriendarako opilak, Nocilla edo fruta izena duten zukuak? Eta umeak eskatzen al ditu lehen aldiz jaki frijituz osatutako umeentzako menuak? Umeak jarrera desegokia duenean edo negarrez ari denean, zergatik eskaintzen dizkiogu gozokiak? Ez al dugu gure frustrazioa produktu desegokiekin estaltzen?

Inguruak ez du laguntzen, baina guk zerbait egin al dezakegu txikienei ohitura onak irakasteko? Umeen eskubidea eta gure betebeharra da osasuna zaintzea. Ez ahaztu, beti gaude garai!*



aitziber aizpuru

LURDES OLAIZOLA-IDOIA ILLARRAMENDI estetizistak



1. Laserra edo argizaria?

Laserra indarra hartzen ari da, baina oraindik, biak.

2. Hariaren teknika?

Ez digute asko eskatzen.

3. Gehien zer depilatzen da?

Hankak.

4. Makillatzeko sekretua?

ESKU eta produktu onak.

5. Udako koloreak?

Laranja eta fuksia.

6. Makillajea, estaltzeko edo edertzeko?

Azalaren arabera.

7. Gutxirekin asko lor al daiteke?

Bai.

8. Itxurak axola al du?

Bai, gero eta gehiago.

9. Ohiko bezeroak?

Adin guztietako neska-mutilak.*

Kris Fernandez

IRENE ALTUNA
LORACENDA
Loiola Bide, 26 Tel: 943 81 51 87
www.ialtanacenda.com

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5 AZPEITIA Tel: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 10 40
Ekain
Larmelak
043-10 10 40
ALBAITARI KLINIKA

Alar
merzeria
Loiolako Inazio Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

ORDULARI
Jose de Arce, 10
Tel. 943 81 02 44
20730 AZPEITIA

uba
Kontabilgintza
Itakala
Laboratu
Santak
Gestari Lanak
Finan administrazio
Gestio Inmobiliariora
Tel: 943 151 228 Fax: 943 151 272
Euzkoan Kalea, 41 • 48901 Leizor

KIRURI
K
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnua.: 943 81 00 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTEA DISENU
ESKOLA
ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 18:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
Talla 18:30 - 20:00
Jose Arceko Kalea, 3
943 81 28 08
arce@adibarra@gmail.com
Matrikula arte osoan zabalik



1. Lehen aldiz udal korporazioarekin atera ziren Izarraitz txistulari taldeko kideak 1981eko San Inazio egunean.

2. Taldearen 25. urteurrena ospatzeko hainbat txistularik egin zuten kalejiran, 2006an.

3. 1999an, San Inazio bigarrenaz, txistulariak Loiolan.



40 urte, herria alaitzen

Izarraitz txistulari taldeak 40 urte bete ditu aurten. Euskaraldikoekin batera, saninazioetako txupinazoa botako dute. 📝👁️ **Ihintza Elustondo**

Zenbat aldiz alaitu ote dituzte txistu doinuz herriko kaleak? Pentsatzen jarriz gero, herriko festetako ekitaldi gehienetan, hantxe izaten dira txistua ahoan eta dantbolina eskuan. Leku guztietan presente izaten diren arren, ia oharkabean pasatzen dira askotan Izarraitz txistulari taldeko kideak. Baina, aurtengoan, beraiek izango dira saninazioetan lekurik preziatuenenan: hain zuzen ere, beraiek botako dute jaiei hasiera eman-goen txupinazoa, Euskaraldikoekin batera.

40 urte bete ditu aurten Izarraitz txistulari taldeak. Musikari gehiagoko boladak izan diren arren, gaur egun, lau kide ditu taldeak: Joxe Mari Sagarzazu (Azkoitia, 1949), Edu Arana (Azpeitia, 1965), Garikoitz Mendizabal (Zestoa, 1973) eta Jon Mendizabal (Zestoa, 2005). Haiekin urte luzez aritutakoa da Xabin Zulaika (Zestoa, 1945); guztira, 60 urte eman ditu txistua jotzen, baina osasun arazoak tarteko, iaz taldea uztea erabaki zuen.

Bostak izango dira uztailearen 30ean Azpeitiko udaletxeko balkoian suziria botatzen. Ilusioa egin die txupinazoa botatzeko beraiekin oroitu izanak: "Hainbeste urte txistua jotzen pasatuta, egindakoren aitortza dela sentitzen dugu", azaldu du Sagarzazuk.

1978-79 urteen bueltan sortu zen Izarraitz txistulari taldea. Aurrez, Itsasiko dantzarekin batera aritzen ziren txistua jotzen, baina haiekin jotzeari utzi eta talde berri bat sortzea erabaki zuten. Arana eta Zulaika elkartu ziren aurrena, eta pixka bat geroago Sagarzazu batu zen taldera. 1981ean udal korporazioarekin irteten hasi ziren, eta dianaz diana eta festarik festa, halaxe iraun dute gaur arte.

Mendizabal aita-emeak berriagoak dira taldean. Garikoitz 1990 inguruan hasi zen Izarraitzen; kontserbatorioan musika ikasketak egiten ari zen orduan, eta Zestoa txistua jotzen bazuen ere, ez zuen talde egonkorrik. "Izarraitzen txistua jotzen hasteko aukera suertatu zitzaidan, eta itsu-itsuan animatu nintzen". Egun, txistulari profesionala da Garikoitz, baina Azpeitiko taldeak eman diona berarentzat zer garrantzitsua izan den azpimarratu du: "Lagun onez gain, txistu talde batean jotzeko aukera ere eman dit Izarraitz taldeak. Gainera, balio oso garrantzitsuak transmititu dizkit: maiztasuna, diziplina eta bokazioa". Musikari profesionala izan arren, taldean afizionatuekin duen lotura hori "oso-oso aberasgarria" iruditzen zaio Garikoitzi.

Hark txistuarekiko duen harreman estua



Goian, Garikoitz Mendizabal; eta, behean, Joxe Mari Sagarzazu, Edu Arana, Jon Mendizabal eta Xabin Zulaika. |||Ihintza Elustondo

transmititu dio Jon semeari, eta hura ere Izarraitz taldean jotzen hasi da. Zulaikak uztea erabaki zuenean, haren lekukoa hartu zuen Jonek. Hura da taldeko gazteena aldearekin, baina txistua jotzen "pozik" aritzen dela adierazi du. Zulaika harro dago hark hartu duela bere lekukoa: "Fenomeno jotzen du!", dio.

Hitzordu sorta

Urte hauetan guztietan ez dute meritu makala izan txistulariek. Jende askok ez dakien arren, igandero-igandero, hileko lehen igandean izan ezik, diana jotzen dute, 09:00etan hasita. Alde Zaharrean, kalerik kale, 40 bat minutuz aritzen dira txistua jotzen. Asteroko hitzordu horrez gain, herriko festetan hainbat emanaldi eskaintzen dituzte, eta Azpeititik kanpo ere hainbat saio egindakoak dira.

Konpromiso horien artean, izan dute diskoa ateratzeko tarterik ere: hain zuzen ere, 1997-98an Joxe Mari Gurrutxaga *Txokolo* txistulariari eskainitako lana kaleratu zuten.

Festarik festa ibiltzen diren arren, ez dute parrandarako tarte handirik izaten txistulariek. Saninazioetan, esaterako, hainbat hitzordu izaten dituzte: dianak jotzen dituzte, korporazioarekin ateratzen dira, zezenketetara ere joaten dira... "Oso ardura lotua" da txistulariena, eta horrek erreleboa aurkitzeko zailtasunak eragiten dizkiela nabarmendu dute. "Ez daukagu lekukoa hartuko duen inor. Igandero jotzera animatuko den jendea aurkitzea oso zaila da", azaldu du Aranak.

Gainera, ez dute xoxik kobratzen egiten dutenagatik. Diru laguntza bat jasotzen dute urtero, eta diru hori arropak, instrumentuak,

sortzen diren gastuak, taldekideen musika ikasketak... ordaintzeko erabiltzen dute. Ez dago esan beharrik, beraz, zenbateraino gustatzen zaien txistua jotzea. Zulaikak behin baino gehiagotan esan izan dio Sagarzazuri honakoa: "Txistua jotzen dirurik ez duk egingo, baina mokadu goxo asko egingo dituk!".

Oso giro polita dute, eta hori da hainbeste urtez taldeak bizirik irauteko sekretua. Diana-oren ostean hutsik egin gabe hartu ohi duten kafea, bizikletan nahiz pilotan elkarrekin egindako saioak, parranda ondoreneko anekdotak eta barre algarak... Oroitzapen ugari pila-tu dituzte urteotan, eta aurrerantzean ere biltzen jarraitzeko asmoa dute, momentuz, ez baitute txistua uzteko asmorik. Ohiturak zaharrak ez galtzeko helburuarekin, festarik festa, herriko kaleak alaitzen jarraituko dute.★

D Ardo Banaketak Elustondo, S.L.

Tel.: 943 740 992 • Mug.: 639 938 974 • elustodobanaketa@gmail.com

DAVID MORENO
BIAITZALEA

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (ABUZTUA)

1-3-7-9-10-13-16-18-19-21-23-31
Arrieta (Azpeitia).
943811274

20-24-27
Beristain (Azpeitia).
943811949

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Abuztuaren 29an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoak: 11:00-20:00. KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuaren: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30.

ERABILGARRI



▲ POLTSAK ESKURAGARRI.

Poltsa konpostagarriak jasotzeko tokiak aldatu dituzte. Honako saltoki hauetan eskura daitezke: Babesa arropa denda, Itzira gozotegia, Xiriako kafetegia, Inar optika eta Urrestillako estankoa.

6-8-11-12-14-15-17-22-25-26-29
Jacome (Azpeitia).
943080258

GAUEZ, URTE OSOAN
Alberdi (Azpeitia).
943815974

GARRAIOA


ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

IONE GURRUTXAGA

Euskara zuzentzailea

“ ikusle asko ez dira konturatzen egiten dugun Lanaz ”

EITBko albistegietako zuzentzailea da Gurrutxaga egun. Baloratu gabeko lanbidea dela dio berea, isilpekoa eta ikusten ez dena.  Mireia Galarza

Gogorra al da zuzentzailearen lana?

Boladak daude; hala ere, bereziki telebistan, momentu larriak egon daitezke. Izan ere, azken orduko zerbait gertatzen bada, guztion erritmoa azkartzen da.

Nahikoa baloratzen al da zuzentzailearen lana?

Ez. Isileko lana da; ikusle asko ez dira konturatzen egiten dugunaz. Askok, gainera, jakin ere ez dakite lanbide hau existitzen denik.

Beraz, telebistan gehiago baloratzen da ikusten den hori.

Bai. Etxeko pantailatik langile gutxi batzuk ikusten dira. Horiek ere egiten dute lana, noski. Hala ere, nahikoa da lantalde osoa ikustea konturatzeko pantaila atzean ere lana egiten dutenak asko direla.

Euskal Filologia ikasita, ikusten al zenuen zure burua lan honetan?

Ez, ikasten amaitu ondoren, ez nuen inon ikusten. Hala ere, *Berria* egunkarian zuzentzaile moduan lan egiteko aukera sortu zitzaizkidan, aukera aprobetxatzea erabaki nuen. Eta berdin orain telebistan.

Nondik datorkizu hizkuntzarekiko interesa?

Hizkuntzarekiko baino gehiago, komunikazioarekiko interesa izan dudala esango nuke. Beti atsegin izan dut irakurtzea eta idaztea. Izatez, kazetaritza ikastea ere pentsatu nuen, baina azkenean euskal filologia ikastea erabaki nuen.

Zorrotza al zara zure lanean?

Egunaren arabera. Gogoia beti izaten dut, baina batzuetan indar gehiagorekin ekiten diot egunari. Termino guztiek ere ez dute zailtasun maila berdina; batzuk hurbilagoak zaizkigu, besteak, berriz, arrotzagoak.

Menperatu al daiteke hizkuntza bat osotasunean?

Ez. Onena izanda ere, beti dago kontrolatuko ez duzun hizkuntzaren zati bat. Izan ere, hizkuntza guztiek adar asko ukitzen dituzte, eta guztiak kontrolatzea ezinezkoa dela iruditzen zait. Euskarak, gainera, euskalki pila bat ditu, eta horrek zailtasunak areagotzen dizkio hiztunari. Gaiak ere eragina du; batek asko jakin dezake ekonomiari buruz, baina ez hainbeste beste gai batzuei buruz.★



1

1. Ione Gurrutxaga, Azpeitiko Udal Liburutegian.
2. EITBko Gaur Egundako albistegietako platoetako batean.
3. Euskaraldia egitasmoaren argazkia, Gurrutxagak ere parte hartu du bertan.



2



3

Nazionalismoa sendatzeko, ibili

Arrazoi dute, arrazoi osoa. Egia da gure abertzaletasunaren kontra daudenek, baina beren nazionalismoa etengabe hauspotzen dutenek behin eta berriz eta askotan esaten dutena: bidaiatuz sendatzen dira nazionalismoak. Egia da. Aspaldi ikusi nuen. Amerikako Estatu Batuetara joan, eta izar eta barradun bandera ikusten nuen bazter guztietan. Aireportuan, hantxe muturren aurrean delako bandera. Aireportutik herrira egin, eta batean eta bestean bandera hura xe. Joan rodeo-a ikustera, eta hantxe amazona bat, zaldi gainean ikusgarri haruntz eta honuntz, banderaren makila estribuan sartuta trostan, dena delako betiko trapua airean. Toki ofizialetan, bandera. Toki ez ofizialetan, bandera. Iragak eta afixetan, bandera. Etxe atarrietako belardian, bandera. Autoetan, bandera. Bandera, bandera, bandera. Bai. AEBetara bidaiata bat, bakar bat, egiteak nazionalismoak sendatzeko balio du. Bai horixe.

Ni ez ninduen lehen bidaiak sendatu, eta hogeire behar izan nituen, baina sendatu nintzen azkenean. Zer arraio. Tratamendu horri garesti xamarra iritzi diote gure herrian batzuek. Horixe aditu behar izan dut sarritan. Arrazoi dute horiek ere, arrazoi osoa... Hortaz, hain urruti joan gabe ere, senda daiteke inoren nazionalismoa. Esate baterako, Espainiara joanda. Ez nauzue oso zalea, baina tartean behin joan behar izaten da hara ere. Joan deneko lau urtean ondoko inperioko herrietara joatea fortunatu zaigu, joan beharra izan dugula esateko modua da, alabaren atzetik, haren gimnasia txapelketak direla eta ez direla. Eta ibili gaituzue Gaztelako Guadalajaran eta Valladoliden. Eta ibili gara Asturiaseko Xixonen. Eta Murtzian. Eta Alacanten... Eta ibili gaituzue, azkena, Zaragozan. Eta bandera espainola Espainiako Plazan. Eta espainola denda askotako erakusleihoetan. Eta espainola telefono mugikorren dendan, espainolaren hori-gorri gorri-horiak karkasa



|||||||miel a. elustondo|||

|||Bidaiatu, bai, ibili munduan. Arrazpo dute, bidaiatuz sendatzen dira nazionalismoak

guztietan. Eta espainola eta espainola eta espainola. Nazionalismoa sendatzeko sendagai. Bai be! Eta ze ba ez ba!

Arrazoi dute

Zaragozan bertan, gimnasia txapelketa egiten zen pabilioitik, Nafarroa EAetik baino urrutiago zegoenetik, erdialdeko hotelera joan, trasteak eta autoa hartu eta etxera itzultzeko, eta arimarik ez kaleetan. Ez Ebro ederraren ertzean, ez Pilareko katedralaren ondoko plazan, ez parte zahar harrigarriko kale estuetan ere. Inor ez. Han eta hemengo bandera espainolak besterik ez. Eta orduantxe, orro baten burrunba. "Gooooooool!". Nazionalismoa sendatzeko lehen indizioa hartua jendeak. Eta hartu trasteak, hartu autoa, eta pabilioira, gure gimnasta bikaina –bigarren Espainiako txapelketako lehen fasean, zortzigarren finalean–, jaso eta etxera itzultzeko...Nazionalismo gaitz guztiak sendatuta. Bidaiatu, bai, ibili munduan. Arrazoi dute, bidaiatuz sendatzen dira nazionalismoak.✘





AZPEITIA

2018

SANINAZIYUEK

UZTAILAK 21 - 22 - 27 - 28 - 29 - 30 - 31 · ABUZTUAK 1 - 2



Ez beti
da ez!



Ondo pasatu
saninaziyuek!

uztarrria tonbola

ZATOZ
AURTENGOAN
ERE!

bertan
azpeltik morkatari elkarteak

Talasoterapia
Zelai
ZUMARA

adals
leapandegia

ANCHO

Jone & Mairak

INAXITA

ukabi
informazioa

GAROA
kafetegia

MAITANE
ESTETIKA ZENTROA

PIKUA
taberna

ENXETA
TABERNA

GOATZ
LEAPANDEGIA

OKINDEGIA
TRENBIDE
KAFETEGIA

WIZ

etxera
leapandegia

AZKUNE

KIMETZ

Zuhaz

ITURRIX
leapandegia

Beloki

Harategia Untatategia

Nagaitz
kafetegia

KIROLDEGIKO
TABERNA

EROSKI bidaiak

BORDEXO

Halcon viajes.com

Kutxillo

J.B. San Sebastian Harategia

Sanjuandegi

JOXE RAMON
harategia

Orozola Harategia

ICAR BANJUAN
L.S.

anere

EGARA

AMON

INGAUNA

galain

Jim Clark

SUGAR

aisialdi

CEVIBIK

CEVIBIK

Expellia

Bifara

WUBATZ

Inte

INTXAUSTI
HARATEGIA - HARATEGIA

R

juantxotxiki

Kantoi

LOURDES
deplazatza

alior
kafetegia

alior
kafetegia

MENDIZBAL
ERRETEGIA

Meola

sanagustin

LABRIKO

garai

eperra

Sakona

INA

Eduarne
leapandegia

ERMELA
URDATEGIA

ERROTAUNDI

TOPO

Baigera

ORREGOZO
leapandegia

ZUAR
leapandegia

Trantxu
leapandegia

Zh

ELNEK
leapandegia

TXOKOA
leapandegia

menats
leapandegia

LARATZ
kafetegia

INTZ

irika
leapandegia

Atsedan
Kafetegia

KINTTELA
leapandegia

MOTX

TXOKOA
leapandegia

menats
leapandegia

LARATZ
kafetegia

INTZ

LABORAL
kutxa

Berdiz

A&M

D.A.

LEVENTE
leapandegia

JARDIEN
leapandegia

B&R
leapandegia

Wot
leapandegia

Korrale
leapandegia

LABORAL
kutxa